

**AMURRIOKO EMAKUME ETA  
GIZONEN ARTEKO  
BERDINTASUNERAKO IV. PLANA**



**AMURRIO**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO



<b>AURKIBIDEA</b>	<b>or.</b>
Sarrera	2-3
Legegintza arloa eta arlo teorikoa	4-11
Amurrioko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako IV. Plana (2015-2018)	12-18
Berdintasunerako IV. Plana gauzatzeko prozesua	19
Diagnostikoan hautemandako hobekuntza-proposamen nagusiak	20-22
Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde gobernamendua hobetzeko neurriak	23-31
1. ardatza: balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea	32-49
2. ardatza: gizarte antolaera erantzunkidea	50-55
3. ardatza: emakumeenganako indarkeria errotik kentzea	56-61
Ekintza-planaren laburpen-taula	62-69
Planaren kudeaketa	70-73

## SARRERA

---

Orain arte emakumeek eta gizonek gizartean tradizioz bete izan duten papera nabarmen aldatzen ari da, eta gizartean aurrerapausoak eman dira genero arteko berdintasuna (hemendik aurrera, berdintasuna) lortzeko bidean. Aldaketa horiek ezinezkoak lirateke emakumeen mugimendu asoziatiboaren ekarpen garrantzitsuengatik eta emakume zein gizon anonimoek egin duten ahalegin handiarengatik izango ez balitz, haien eguneroko bizitzan eta lanean.

Aurrerapauso horiei esker, berdintasuna funtsezko eskubidetzat jotzen da tresna juridiko nagusietan, eta botere publikoei exijitzen zaie berdintasun benetakoa eta efektiboa oztopatzen duten hesiak desagerrarazteko. Alabaina, errealitateak oraindik ere erakusten digu botere-harreman asimetrikoak daudela gizonen eta emakumeen artean; horixe ikus dezakegu emakumeek lan munduan zein esparru politikoan duten partaidetzaren datuak aztertzen ditugunean, bai eta emakumeen kontrako indarkeriaren datuak, emakumeen pobrezia buruzko datuak, gizonen eta emakumeen denboraren erabilerari buruzko datuak eta beste hainbat faktore aztertzen ditugunean ere. Horrek argi eta garbi islatzen eta frogatzen du ezinbestekoa dela berdintasunaren alde lanean jarraitzea, eta horren ardura nola botere publikoena hala gizarte osoarena dela.

Mainstreaming edo genero-zeharkakotasunari buruzko adituen taldea Europako Kontseiluak hala eskatuta bildu zen, eta jada 1995ean adierazi zuen benetako berdintasunak ez duela esan nahi ekintzetan izatezko berdintasunik dagoenik. Hala, badirudi ideia hori hartu behar dugula abiapuntutzat, hau da, legearen aurrean gizon eta emakumei berdintasuna aitortzea aurrerapauso garrantzitsua izan den arren, horrekin lorturiko emaitzak ez direla behar adinakoak. Izan ere, desberdintasunak izaera estruktural argia du. Hori dela eta, genero berdintasunaren aldeko politika publikoek (hemendik aurrera, berdintasun-politikak) eta emakumeen mugimendu asoziatiboak legeak ezarritako berdintasunetik harago joateko beharra ikusi dute; hala, berdintasunaren printzipioa eguneroko bizitzako edozein esparrutan benetan aplikatzen dela bermatzeko erronka bota dute, ulertzen baitute, oro har, espazio horietan desberdintasun- eta bazterkeria-egoerak sortzen eta errepikatzen direla.

Aipatu beharra dago, bestalde, genero-berdintasunak on egiten diela pertsona eta erakunde guztiei; gainera, gizarte berdinago eta bidezkoago bat eraikitzeko apustu zabal baten elementu garrantzitsua da.

Hori gogoan, Amurrioko Udalak erabaki du gizarte berdinago bat lortzeko ekarpen bat egin behar duela; horretarako, Amurrioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Plana egin da, 2015-2018 gauzatze-aldirako.

## LEGEGINTZA ARLOA ETA ARLO TEORIKOA

---

Azken urteotan, hainbat lege eta araudi juridiko onetsi dira nazioartean, Europan, Estatuan eta tokian-tokian emakume eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea esplizituki aitortzeko. Lege horiek honako Berdintasun Plan honi babes insituzional eta legegintza-babes zabala eskaintzen diote.

Hona hemen genero-politiken sare teoriko-legalari buruzko hainbat elementu garrantzitsu:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (2003-12-21ean eguneratua).
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.
- Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana, 2010-2014.
- 4/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasunerakoa.
- Emakumeek eta Gizek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunaren aldeko Europako Gutuna.

### **7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (2003-12-21ean eguneratua)**

Legearen 28. artikulua dio udalerriek beste administrazio publikoen ekintzen osagarri diren jarduerak egin ditzaketela, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumeen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumenaren babesari dagozkionak. Hor argi dago zer egiteko duen tokiko administrazioak: esku hartzeko eremu normatibo bat ezartzen du, udalerriei bide ematen diena jarduerak sustatzeko eta herritarren beharrezkoetarako eta helburuetarako beharrezko zerbitzuak emateko (genero-arlokoak). Horrek ez du inolaz ere eragiten, haatik, beste administrazio publiko batzuen eskumenak galdu edo oztopatzea.

#### **4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa**

Aipatu legeak argi zehazten ditu administrazioaren maila bakoitzari dagozkion eginkizunak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean, lege hauek emandako eskumenetan oinarrituta: Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua, Lurralde Historikoen Legearen 6 eta 7 c) 2 artikulua, eta emakume eta gizonen artean aukera berdintasuna eraginkorra eta benetakoa izan dadin, botere publikoak baldintzak sustatzera, oztopoak kentzera eta, baita ere, beren politika guztietan eta ekintzetan aipatu berdintasuna sustatzera behartzen dituen estatutuaren arauak (9.2 art.) eta Europako Batasunaren Ituneko arauak (3.02 artikulua).

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak honako eginkizunak ematen dizkio tokiko administrazioari:

- Genero-ikuspegia txertatzeko egiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea.
- Ekintza positiboko neurriak gauzatzea.
- Programak egitea, Jaurlearitzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten desberdintasun-egoerak eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriak ezagutu ahal izateko.
- Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoerari buruzko eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta

programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzera zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.

- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela eta udal-mailan eman beharrekoak direnean.
- Emakumeek eta gizonek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu sozio-komunitarioak ezartzea, beren izaera dela eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

### **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak erakusten du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea oinarrizko aurrerapausoa dela berdintasun-politiketarako; izan ere, Euskal Administrazio Publikoaren eta, dagokionean, erakunde pribatuen arauetan berdintasunaren legeko printzipio unibertsala ezartzen du, hala aukera-berdintasunari nola tratu-berdintasunari dagokienez.

Lege horrek lau oinarrizko funtzio ezartzen ditu EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren diseinuari eta egiturari dagokienez:

- Plana gauzatzekoan, botere publikoen jarduna arautu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzea (Legearen atariko titulua).
- Euskadiko botere eta administrazio publikoen jardunetan genero-ikuspuntua barneratzeko neurriak arautzea (I. eta II. tituluak).

- Esku-hartze arloetan berdintasuna sustatzeko neurrien eginkizun eratzailera (III. titulua).
- Oinarrizko edukiak definitzea.

### **Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana, 2010-2014**

Arabako Foru Aldundia, bertako sailen bitartez, Planaren indarraldian (2010-2014), berdintasunaren esparruan gauzatuko dituen politikak eta ekintzak gidatuko dituen ikuspegi estrategiko hauetan oinarritzen da: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana (hemendik aurrera, V. PAPME) eta Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

Hori kontuan hartuta, mainstreaming edo gobernamentua ezartzen du hobetzeko helburu edo tresna gisa; hau da, prozesu politiko eta prozedura tekniko gisa. Bukatzeko, gobernu onaren printzipioak bere egiten ditu. “Gobernu onaren” edo “governamentu berriaren” kontzeptua sei printzipiotan egituratzen da.

Halaber, ardatz estrategikoak izango dira emakume eta gizonen berdintasunaren esparruan, plana indarrean dagoen bitartean, landuko diren gai nagusiak.

### **3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasunerakoa**

Lege hau BOEn argitaratu zen 2007ko martxoaren 23an. Abiapuntu du, alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna “giza eskubideei buruzko nazioarteko zenbait testutan aitortutako legezko printzipio unibertsala” dela; eta, beste alde batetik, legearen aurrean berdintasun formala osorik aitortzea oinarrizko alderdia dela eta arauen bidez hobetu behar dela. Arau horiek, gainera, “xede izango dute oraindik ere badiraute sexuagatiko diskriminazio-adierazpenei, zuzenekoei zein zeharkakoei, aurre egitea eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatzea, eta hori galarazten duten traba eta estereotipo sozialak kentzea”.

Funtsezko printzipio hauetan oinarritzen da, besteak beste: “ekintza positiboa”, “ordezkaritza orekatua” eta “zeharkakotasuna”.



Hauxe dio 21.1 artikulua: “toki-erakundeek berdintasunaren eskubidea barneratuko dute euren eskumenak gauzatzean, eta, horretarako, elkarlanean arituko dira gainerako administrazio publikoekin”. Hala, 3/2007 Legea tokiko administrazioen eskumenean ingurukoa da; eskumen horiek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ematen ditu, eta, Euskadiko udalerriei dagokienez, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean zehazten dira.

### **Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunaren aldeko Europako Gutuna**

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak bultzatu du Gutuna, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erkidego Ekintzaren V. Programaren barruan: *“tokian tokiko eta eskualdeko gobernuzakoa da. Izan ere, sinatzeraz, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzeraz eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzera gonbidatzen ditu”*.

EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea) proiektuko kideetako bat da, eta gero eta euskal udal gehiagok sinatu dute Gutun hori. Gutunari atxikitako udalek konpromisoa hartzen dute bi urtean berdintasunerako ekintza-plan bat egin eta ezartzeko, guztien parte-hartzearekin eta ebaluazio-irizpideei lotuta, bai eta plan hori abiarazteko baliabide nahikoa izateko ere. Horrez gain, Udalek behar beste baliabide izan beharko dituzte plana martxan jarri ahal izateko.

Europako Gutunak hauxe aintzatesten die tokiko eta eskualdeko agintariei: *“esku hartzeko maila egokienak dira, desberdintasunen iraupenari zein ugalketari aurre egiteko eta benetako berdintasuna eskaintzen duen gizartea sustatzeko”*.

Arau horien oinarrian jarraian zehazten diren Berdintasunerako Printzipioak daude: *(4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa)*.

## **1. TRATU BERDINA.**

Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

Lege honen ondoreetarako:

- a) Zuzeneko bereizkeria dago pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla eta (haurdun egonda edo ama izanda, esaterako) beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.
- b) Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo jardunbide batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo jardunbide hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.

Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo bestelako laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

Euskal aginte publikoek bermatu egin behar dute bereizkeria-egoerak eragin ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direla eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarrizko eskubideak. Inguruabarrok honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, ezintasuna, adina, sexu-joera, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

## **2. AUKERA BERDINTASUNA.**

Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondoreetarako, aukera-berdintasunak erreferentzia egiten dio, agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko

abiapuntuari edo hasierako baldintzei ez ezik, baita horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzei ere.

Era berean, euskal aginte publikoek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak eskuratzeko; izan ere, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten baita.

### **3. ANIZTASUNA ETA DESBERDINTASUNA ERRESPETATZEA.**

Aginte publikoek beharrezko diren neurri guztiak abiarazi behar dituzte sexuen berdintasunerako prozesuan errespetatu daitezzen bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharriaz dagozkienez dauden desberdintasunak eta aniztasuna, bai emakumeen eta gizonen kolektiboen barruan dauden ezberdintasunak eta aniztasuna ere.

### **4. GENERO IKUSPEGIA SARTZEA.**

Euskal aginte publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan; hala, horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko dute.

Lege honen ondoretarako, hau da *genero-ikuspegia sartzea*: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharriaz ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea.

### **5. EKINTZA POSITIBOA.**

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, aginte publikoek denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren izatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

## **6. SEXUAREN ARABERAKO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK DESAGERRARAZTEA.**

Euskal aginte publikoek, inola ere, sexuaren araberako gizarteko rol eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie; hori, gainera, balorazio eta aitortpen ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez.

## **7. ORDEZKARITZA OREKATUA.**

Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan. Lege honen ondoretarako, pertsona anitzeko administrazio-organotako ordezkariak orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek % 40ko ordezkariak dutenean, gutxienez.

## **AMURRIOKO EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO IV. PLANA (2015-2018)**

---

Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15. artikulua hau dio: “Legegintzaldi bakoitzean eta sei hileko epean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal aginte publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira”.

Bestalde, gaineratzen du “Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute”.

Hala, Amurrioko Udalak Amurrioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Plana (2015-2018) prestatu du (hemendik aurrera Berdintasunerako IV. Plana esango diogu). Datozen lerroetan, plan horren berri emango dugu.

### **Zer da berdintasunerako plan bat?**

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat honetan datza: generoen arteko desberdintasunari buruzko diagnostiko bat egitea eta horren arabera neurriak hartzea, ezarritako lan-helburuak betetzeko asmoz eta bizitzaren hainbat esparrutan berdintasuna lortzeko bidean aurrerapausoak ematea xede hartuta.

Plangintza horrek hainbat urte hartzen ditu barne; beraz, planak, plangintza orokor horretatik abiatuta, urteroko programazioak ere ezarri behar ditu. Horren helburua da lana sistematizatzea, ezarritako helburuen lorpenean emaitza hobekiak eskuratzeko eta lan-prozesuei zein baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Berdintasuna lortzeari dagokionez, ez ditugu emaitza berdinak lortuko elkarrekin zerikusirik ez duten

zenbait neurri aplikatzen baditugu edo plangintza eta estrategia bati jarraituz programatutako ekintzak gauzatzen baditugu. Horrez gain, planaren beste helburu bat da ahalik eta jende gehienaren parte hartzea eta eragileen inplikazioa lortzea.

#### **Amurrioko Udalaren ibilbidea berdintasun-politikei dagokienez:**

Amurrioko Udalak 13 urte daramatza berdintasun-politikak aplikatzen. Politika horiek plan hauen bitartez gauzatu dira:

- Amurrioko Emakume eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Plana (2001-2002).
- Amurrioko Emakume eta Gizonen Aukera Berdintasunerako II. Plana (2005-2008).
- Amurrioko Emakume eta Gizonen Aukera Berdintasunerako III. Plana (2010-2013).

Azken bi planen ebaluazioa egin da, eta ebaluazioetatik ondorioztatutako emaitzak baliagarriak izan dira Udaleko berdintasun-politiken plangintza hobetzeko; zehazki, azken planaren ebaluazioa baliagarria izan da Berdintasunerako IV. Plana diseinatzen.

#### **Berdintasunerako IV. Plana gauzatzeko abiapuntu diren oinarritzko alderdiak:**

Berdintasunerako IV. Plana aipatutako eskumenen eta legedien baitan sortu da eta, gainera, plan horren helburuak bat datoz Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren arloan onetsi duen plangintza orokorrean zehaztutako esku-hartze ildoekin eta jarraibideekin.

Berdintasunerako IV. Plana 2014. urtean prestatu da; urte horretan, Eusko Jaurlaritzak onetsitako azken plangintza EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana – X. Legealdiko Arauak izenekoa zen.

Lehenago ere aipatu denez, 4/2005 Legearen 15. artikulua aipatzen du euskal administrazioek berdintasunaren arloan prestatzen dituzten plangintzek koherenteak izan behar dutela Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren arloko plangintza orokorrean ezarritako esku-hartze ildoekin eta jarraibideekin.

Bertan adierazten da, baita ere, planak edo programak onetsi aurretik, Emakunde -

Emakumearen Euskal Erakundeak euskal administrazioei informazioa eman beharko diela ziurtatzeko planen eta programen edukiak bat datozela Eusko Jaurlaritzak onetsitako plangintza orokorrean azaltzen diren esku-hartze ildoekin eta jarraibideekin. Horretarako, Berdintasun Sailak Emakunderi txosten bat eskatuko dio; txosten horrek adieraziko du, hain zuzen ere, Berdintasunerako IV. Plana Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren arloan onetsi duen plangintza orokorrera egokitzen den ala ez.

Berdintasunerako IV. Plan hau sortu da Amurrioko Udalak genero-berdintasunaren arloan egin dituen plangintzetan bildutako neurriak aplikatzearen eta plangintza horiek ebaluatzearen ondorioz (lehenago ere aipatu dira). Horrez gain, garrantzitsua da azpimarratzea honako Berdintasun Plan hau egin aurretik diagnostiko bat gauzatu dela, Amurrioko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren egoera nolakoa den jakiteko. Diagnostiko horretan, gobernamendua hobetzeko neurriei, gizarte-antolakuntza erantzunkideari, emakumeak ahalduntzeari, balioak aldatzeari eta emakumeen aurkako indarkeriari loturiko hainbat gai aztertu dira. Halaber, dokumentu honetan hainbat hobekuntza bildu dira, hala diagnostikoaren bitartez azaleratuak nola egindako prozesu parte-hartzailearen bitartez agertutakoak. Bestalde, toki-administrazioan eta, oro har, Autonomia Erkidegoan berdintasunaren arloko politika publikoek bizi izan duten esperientzia eta garapena ere bildu da.

Bukatzeko, baina garrantzirik kendu gabe, Berdintasunerako IV. Planak argitara atera nahi ditu emakumeen mugimendu asoziatiboak, Amurrioko mugimendu asoziatiboak eta herritarrek, oro har, egin dituzten hausnarketak eta proposamenak.

#### **Berdintasunerako IV. Planaren gizarte-helburuak eta helburu instrumentalak:**

Berdintasunerako IV. Planaren helburua da pixkanaka genero-berdintasuna lortzea Amurrion. Horrez gain, helburu instrumentala ere izango du: Amurrioko Udalean berdintasun-politikak ezartzeko lanetan aurrerapausoak ematea.

#### **Berdintasunerako IV. Planaren egitura:**

Berdintasunerako IV. Planaren esku-hartzeak bi ataletan banatzen dira: alde batetik, berdintasun handiagoa lortzeko gobernamendua hobetzeko neurriak; bestetik, berdintasunaren arloan esku-hartzeko hiru ardatzak. Laneko helburuak erdiesteko eta

neurri eraginkorrakoak eta efizienteagoak izateko, bai eta Amurrioko Udalean berdintasun-politikak ezartzeko lanetan aurrerapauso handiagoak emateko ere, bi atal horiek sail arteko izaera nabarmena dute.

Jarraian, bi atal nagusiak eta horiek osatzen dituzten esku-hartze ildoak deskribatuko ditugu.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde gobernamentua hobetzeko neurriak:

- a. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista.
- b. Genero-ikuspegia duten estatistikak, txostenak, dokumentuak eta azterketak.
- c. Generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioa.
- d. Berdintasun irizpideak kontratuetan, diru-laguntzetan eta lankidetzaren hitzarmenetan.
- e. Gizonen eta emakumeen presentzia orekatua batzordeetan, epaimahaietan eta udal-erakundeetan.

1. ardatza: balio-aldaketa eta emakumeen ahalduntzea:

- a. Genero-kontzientzia eta emakumeen ahalduntzea garatzea.
- b. Balioak aldatzea, rolak eta estereotipoak baztertuz.
- c. Baliabide ekonomikoak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukerak hobetzea.
- d. Gizarte- eta kultura-baliabideak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukerak hobetzea.
- e. Emakumeek gizartean eta politikan parte hartzea eta eragina izatea.

2. ardatza: gizarte antomendu erantzunkidea:

- a. Zainketaren eta erantzunkidetasunaren gizarte-kontzientzia.
- b. Emakumeen eta gizonen denbora-erabilerak: etxeko lanak eta zainketa-lanak agerian jartzea, aintzatestea eta kontuan hartzea.



- c. Familiako bizitzaren eta lanaren edo enplegu-bilaketaren arteko kontziliazio erantzunkidea.
- d. Menpekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntza emateko gizarte- eta ekonomia-zerbitzuak eta -bitartekoak.

3. ardatza: emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea:

- a. Informatzea, heztea eta jakitera ematea, prebenitzeko.
- b. Udalaren esku-hartzea.
- c. Baliabideak sortzea eta/edo egokitzea, eta mantentzea.
- d. Erakundeen arteko koordinazioa.

Horrez gain, Berdintasunerako IV. Planaren azken atalean kudeaketa nolakoa izango den azaltzen da.

### **Egitura-elementuen deskribapena**

Bi atal horietan biltzen dira 2015-2018 urteetan berdintasunaren arloan lehentasuna izango duten esparruak. Lehentasuna dutela erabakitzeko irizpideak hauen arabera dira:

1. Berdintasunaren arloko legedia.
2. Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren arloan onetsi duen plangintza orokorra.
3. Amurrioko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Planaren (2010-2013) ebaluazioa.
4. Berdintasunerako Udal Espazioa eta Foro Parte Hartzailea. Foro horietan, erakundeek, adituek, emakumeen mugimendu asoziatiboek eta pertsona partikularrek hartuko dute parte. Hori kontuan harturik, erabaki da gai hauei lehentasuna ematea, hala gizarteak hori behar duelako nola aldaketa eragiteko gaitasun estrategikoa dutelako.

Horrez gain, beharrezkoa da, baita ere, Udaleko Berdintasunerako IV. Planaren esku-hartze esparruak zehaztea; hau da, Amurrioko errealitatera egokitzea eta

erabakitzea zein esparrutako esku-hartzeek izan behar duten lehentasuna. Hau da gure proposamena:

- 1) Familia eta erantzunkidetasuna
- 2) Eskola eta gazteria
- 3) Erakundeak
- 4) Enpresak

Bestalde, ildo estrategikoak HELBURUETAN eta EKINTZETAN antolatu ditugu. Hona hemen antolakuntza horren taula:

<b>Ardatzak</b>	<b>Helburuak</b>	<b>Ekintzak</b>
Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde gobernamendua hobetzeko neurriak	7	19
Balio-aldaketa eta emakumeen ahalduntzea	12	39
Gizarte antolamendu erantzunkidea	4	7
Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea	6	13
<b>Guztira</b>	<b>29</b>	<b>78</b>

#### **Berdintasunerako IV. Plana egiteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko epea:**

Berdintasunerako IV. Plana 2014an egin da, eta 2015- 2018 aldian gauzatuko da. Berdintasunerako Plana indarrean dagoen urte bakoitzean ebaluazio bat egingo da; hau da, Berdintasunerako IV. Planaren lehenengo ebaluazioa 2015eko abenduan egingo da, eta berdin hurrengo urteetan. Planaren azken ebaluazioari dagokionez, indarraldia bukatu ondoren egingo da; hau da, 2019ko urtarrilean.

Azken ebaluazioan helburuak zenbateraino bete diren balioetsiko da; horretarako, alderatu egingo da 2015ean zegoen abiapuntu-egoera eta 2018an lortutako egoera ezarritako helburuei dagokienez.

#### **Plana ezartzeko eta gauzatzeko aurrekontua**

Amurrioko Udalak 218.767,44 € bideratuko ditu, gutxienez, Berdintasunerako IV. Plana

indarrean egongo den 4 urteetarako. Baliabide ekonomiko horiek Plana ezartzeko eta gauzatzeko erabiliko dira.

## **BERDINTASUNERAKO IV. PLANA GAUZATZEKO PROZESUA**

---

Helburua zen Amurrioko udalerriak dituen beharrizan, baldintza eta ezaugarrietara egokitzen den Berdintasunerako Plan bat egitea, berdintasuna lortzeko helburua erdiesteko eta Udalean zeharkako genero-politika bat gauzatzea sustatzeko. Xede horrekin, Udalean ardura politiko edo teknikoa duten pertsona guztien parte-hartzea bilatzen duen lan-metodologia bat sortu da; metodologia horren bitartez, Berdintasunerako IV. Plana gauzatzearen ardura duten sailak eta inplikatu diren pertsonak izango dira Planaren protagonistak hasieratik bertatik.

Horrez gain, herritar guztiez osaturiko gizartea indartze aldera, eta herritarrei berdintasun-politika publikoetan parte hartzeko aukera emateko, lan-prozesu paralelo bat sortu zen. Prozesu paralelo horren helburua zen espazioak sortzea emakumeen mugimendu asoziatiboak, baita beste elkarte inplikatu batzuek ere, aukera izan zezaten Planaren diseinuan parte hartzeko; betiere, Amurrioko herritarren parte hartzea ahaztu gabe.

## **DIAGNOSTIKOAN HAUTEMANDAKO HOBEKUNTZA PROPOSAMEN NAGUSIAK**

---

Hona hemen diagnostikoa egin ondoren aurkeztu diren hobekuntza-proposamenak; proposamen horiek bat datoz EAEko Emakume eta Gizonen berdintasunerako VI. Planak aipatzen dituen printzipioekin eta esku-hartze ildoekin:

- ✓ EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALDE GOBERNAMENDUA HOBETZEKO NEURRIAK
- ✓ BALIO-ALDAKETA ETA AHALDUNTZEA
- ✓ GIZARTE ANTOLAMENDU ERANTZUNKIDEA
- ✓ EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

### **EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALDE GOBERNAMENDUA HOBETZEKO NEURRIAK**

- Sail guztien inplikazioa lortzea, genero-ikuspegia zeharka aplikatzeko.
- Sailetan aurrekontuaren zati bat gordetzea genero-ikuspegia duten jarduerak sustatzeko.
- Berdintasunaren alde gobernamendua indartzea (sustapen- eta koordinazio-egiturak, prestakuntza-planak, kontziliazio-politikak, genero-ikuspegia duten araudiak gauzatzea...).
- Planaren ebaluazio jarraituari eustea.
- Genero-berdintasunaren arloan prestakuntza ematen eta sentsibilizatzen jarraitzea.
- Genero-ikuspegia praktikan jartzeko tresnak ematea.
- Ager daitezkeen beharrak berdintasun-teknikariarekin alderatzea. Sailek era koordinatuan lan egitea.
- Berdintasuna sustatzeaz arduratzen den sailari eustea.
- Berdintasunerako Udal Espazioak egiten duen lanari eustea.
- Hainbat eragileren arteko jarduera bateratuak antolatzea, kanpainak sendotzea...

### **BALIO-ALDAKETA ETA AHALDUNTZEA**

- Jarduerak auzoetako emakumeengana hurbiltzea.

- Gizonak erantzunkidetasunaren arloan dituzten abantailen berri ematea.
- Emakume gazteen elkarteak sortzen laguntzea.
- Emakumeak ahalduntzea eta kontzientziatzea, eta aniztasun osoa aintzat hartzea.
- Gizonak sentibildatzea erantzunkidetasunak dituen onuren inguruan. Erantzunkideak diren gizonei ikusgarritasuna ematea, gainerako herritarrentzat eredu baitira.
- Gurasoei informazioa ematea kirola egitearen ondorioei buruz. Familien rola oso garrantzitsua da; izan ere seme-alabek kirola egitea eskolaz kanpoko ekintza gisa ikusten eta "aholkatzen" dute, horrek dakartzan ondorioak argi izan gabe.
- Berdintasunaren aldeko martxak, lehiaketak, kirol-jarduerak eta abar antolatzea.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak: gizonak aintzat hartzea eta horiei dei egitea, protokoloetan parte har dezaten...; profesionalak prestatzea, sexuaren arabera sufrimendu emozionalaren adierazleak zein diren jakin dezaten.
- Droga-mendekotasunari buruzko tailerretan genero-ikuspegia txertatzea.
- Familiak aintzat hartzea hala eskolari loturiko gaietan nola eskolatik kanpokoetan. Familiei genero-berdintasunari buruzko informazioa, gidak eta tresnak bidaltzea.
- Informazio ez-sexistaren ereduak ezagutaraztea (jostailuak, jolasak, ipuinak, liburuak, filmak...).
- Hezkuntzaren arloko eragileekin sarean lan egitea, ereduak eta jardunbide onak partekatzeko.
- Prestakuntza-saioak antolatzea "ziber-jazarpena" prebenitzeko, eta prestakuntzan genero-ikuspegia txertatzea.
- Mota askotako elkarteak (kultura-, gizarte- edota kirol-arlokoak, besteak beste) arteko harremanak sustatzea.

## **GIZARTE ANTOLAMENDU ERANTZUNKIDEA**

- Enpresak kontzientziaztea, konturatu daitezen kontziliazio-politikak txertatu behar dituztela laneko giroa, produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzeko. Enpresekin konpromisoak lortzea.
- Herritarrak sentzibilizatzea zainketa-lanen onurei buruz, lan horiei balioa emateko.
- Enpresetan zainketa-baliabideak (haur-eskolak) jar ditzatela sustatzea.
- Zainketa- eta elkartasun-sareak sustatzea, emakumeek lana lortzeko aukera handiagoa izan dezaten.
- Eskoletan gurasoei zuzenduriko erantzunkidetasun tailerrak antolatzea.
- Kontziliazioaren aldeko neurriak eta baliabideak sustatzea.
- Umeentzako ludotekak sortzea, haiek han dauden bitartean amek kirola egin ahal izan dezaten.
- Udalerriko enpresei eskatzea kontziliazio-neurriak eskaintzeko.
- Aisialdirako ludotekak edo hartzaindegiak.

## **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA**

- Eskoletako ikasleei informazioa ematea emakumeen aurkako indarkeriari buruz.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza emateko protokolo-mahaia egiten ari den lanari eustea.
- Emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten emakumeei babesa ematea, ez daitezen beti biktima izan.
- Azaroaren 25eko kanpainak prestatzen jarraitzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programetan saltzaileek parte har dezaten ahaleginak egiten jarraitzea.
- Herritarrei jakinaraztea zein diren eskura dauden zerbitzuak.
- Indarkeriazko bikote-harremanak prebenitzeko kanpainak egitea.

## **EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ALDE GOBERNAMENDUA HOBETZEKO NEURRIAK**

---

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde gobernamendua hobetzeko neurrien atalari ekin baino lehen, aipatu beharra dago, beste ezer baino lehen, emakumeek gure gizartean pairatzen duten berdintasunik ezaren jatorria egiturazkoa dela. Horrek esan nahi du genero-desberdintasuna gizartean existitzen diren eguneroko bizitzako esparru guztietan ageri dela. Hala, ideia hori abiapuntu hartuta, berdintasun-politiken helburuetako bat politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzea da; izan ere, politika horiek eragina dute desberdintasuna agertzen eta ugaltzen den bizitzako hainbat esparrutan.

Bestalde, ezinbestekoa da onartzea politika publikoak, gizarteak sorturiko produktu diren heinean, ez direla neutralak genero-berdintasunari dagokionez; hori dela eta, politika horiek berdintasun-printzipioari egokitu behar zaizkio, desberdintasun-egoerak errepika ez daitezen eta gero eta berdina goa eta bidezko goa den gizarte bat eraikitzen lagun dezaten.

1997an, Europako Kontseiluak honela definitu zuen genero-zeharkakotasuna edo *mainstreaming*: “Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, neurri politikoak hartzeko orduan zeresana duten aktore guztiek politika, maila eta etapa guztietan sar dezaten genero berdintasunaren ikuspegia”.

Bestalde, ezin ahaztu daiteke politika publikoetan genero-ikuspegia txertatuz gero, politika horiek eraginkorragoak eta efizienteagoak izango direla, haien eragin-esparruko gizon eta emakumeen errealitateari, beharizanei, espektatibei eta interesei buruzko ezagutza sendoak izan beharko baitituzte eta berdintasuna lortzeko lanetan eragin negatiboa izan dezaketen indarrak neutralitzeko neurriak aplikatzeaz gain, berdintasuna lortzetik gero eta hurbilago egotera eramango gaituzten neurriak ere txertatuko baitituzte.



Horrez gain, kontuan izan behar dugu emakumeek zeresana izan behar dutela politika publikoak diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko lanetan; hala, haien herritartasun osoa garatu ahal izango dute eta haiek esana aintzat hartuko da politika horiek diseinatzean, ezartzean eta ebaluatzean.

Hori dela eta, aipatu kontzeptuak abiapuntu hartuta, berdintasunaren alde gobernamentua hobetzeko neurriak hainbat esku-hartze ildotan egituratu dira; neurri horiek, beraz, Udalaren jardunean berdintasuna sustatzea dute helburu.

Hauek dira ardatzak barne hartzen dituen esku-hartze ildoak:

1. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista.
2. Genero-ikuspegia duten estatistikak, txostenak, dokumentuak eta azterketak.
3. Generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioa.
4. Berdintasun irizpideak kontratuetan, diru-laguntzetan eta lankidetzaz hitzarmenetan.
5. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lehiaketetan eta epaimahaietan.

Aipatutako esku-hartze ildoei dagokioenez, aipatu beharra dago emakumeek gizartean, berdintasun politiketan eta politika publikoetan duten parte-hartzeari buruzkoak II. ardatzean, “Balio-aldaketa eta emakumeen ahalduntzea” izenekoan, landuko direla.

## HIZKUNTZAREN ETA IRUDIEN ERABILERA EZ SEXISTA

Hizkuntza eta irudia gizarteak eraikitako zerbait dira; horregatik, egungo desberdintasun-egoera islatzen dute eta, kasu batzuetan, egoera hori indartu ere egiten dute. Bestalde, kontuan hartu behar da hala hizkuntza nola irudia aldaketa eragiteko tresna indartsuak direla; izan ere, lotura estua dute pentsatzeko erarekin eta, errealitatea izendatzeaz gain, interpretatu eta kontzeptuen zein irudien bitartez birstortu ere egiten dute. Ondorioz, hizkuntza eta irudia erabiltzeko dugun modua aldatu behar dugu; hala, errealitatea berdintasunetik izendatu, irudikatu, interpretatu eta eraiki ahalko dugu tresna horiekin.

## GENERO IKUSPEGIA DUTEN ESTADISTIKAK, TXOSTENAK, DOKUMENTUAK ETA AZTERKETAK

Berdintasunaren printzipiora egokitzen diren politika publikoak egin aurretik bete beharreko oinarriko baldintza da esku-hartzearen xede diren esparruetan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zein diren jakitea. Hala, zehazki emakumeen eta gizonen errealitateari buruzko azterketak egiteaz gain, genero-ikuspegia txertatu behar da Udalak egiten dituen estatistika eta azterketa guztietan; hala, behar bezainbeste informazio izango du eta Udalak esku hartzen duen eguneroko bizitzako esparruetan errealitatearen bilakaera nolakoa izan den jakin ahal izango du, bai eta desberdintasun-egoerak dituzten esparruak hauteman ere.

## GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA

Politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko eta hobetzeko oinarriko tresnetako bat da generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioa. Tresna hori Berdintasunerako 4/2005 Legean ageri da, bai eta Berdintasunerako Lege Organikoan ere, Estatuko Administrazio Orokorren kasuan.

Generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioaren helburua da berdintasunari buruzko politika publikoak onetsi baino lehen politika horiek izango duten eragina aztertzea; hala, jakin ahal izango dugu politika horiek eragin positiboa edo negatiboa izango duten berdintasuna lortzeari dagokionez. Ebaluazioari esker, eragina negatiboa izango dela ondorioztatu bada, aukera egongo da politika onetsi aurretik neurri zuzentzaileak ezartzeko eta berdintasuna lortzeko beste neurri batzuk txertatzeko.

## BERDINTASUN IRIZPIDEAK KONTRATUETAN, DIRU LAGUNTZETAN ETA LANKIDETZA HITZARMENETAN

Kontratuak, diru-laguntzak eta lankidetzaz hitzarmenak dira Udalaren eta herritarren artean harremanak sortzeko eta diruz laguntzeko tresnetako batzuk. Ondorioz, enpresetan, elkarteetan eta beste erakunde batzuetan berdintasunaren aldeko lana sustatzeko asmoz, kontratuak eta diru-laguntzak esleitzeko politikak tresna garrantzitsutzat jotzen dira berdintasuna lortzeko lanetan aurrerapausoak eman ahal izateko.

Halaber, kontratuei buruzko legeriari eta hurrengo atalean aurreikusitakoari jarraituz, kontratua exekutatzeko ezinbesteko baldintza izango da esleipendunak, prestazioa ematean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzea.

Horri dagokionez, kontuan hartuko dira, besteak beste, “bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak, enpresaren gizarte-erantzukizuna edo berdintasunaren arloko enpresaren ziurtagiria eskuratzea (...)”. Hauek dira berdintasunaren alde gobernamentua hobetzeko neurrien atalean egingo diren ekintzak:

### **G.1. helburua: Udalean existitzen diren berdintasun-politikak koordinatzeko egiturak indartzea.**

#### **1. jarduera: esku-hartze programa zehatzetarako sail arteko batzordea indartzea.**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: alkatea eta sail guztiak.

Betetze-mailaren adierazlea: sail arteko batzordea deitzea (bai/ez).

#### **2. jarduera: Berdintasunerako Udal Espazioa mantentzea eta indartzea.**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Berdintasunerako Udal Espazioa mantentzea eta indartzea (bai/ez).

#### **3. jarduera: erakundeen koordinaziorako egituretan parte hartzen jarraitzea (Berdinbidean, adibidez).**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Amurrioko Udalak zenbat lan-mahaitan eta programatan parte hartu duen.

## **G.2. helburua: berdintasun-politiken ebaluazio jarraitua sustatzea.**

### **1. jarduera: berdintasun-planaren ebaluazio jarraitua egitea.**

Gauzatze-kronograma: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: berdintasun-planaren urteko ebaluazioa egitea (bai/ez).

### **2. jarduera: EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Institutuak berdintasun-politikak ebaluatzeko egiten duen inkesta elektronikoa, tokian tokikoa, betetzea.**

Gauzatze-kronograma: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Institutuaren inkesta elektronikoa betetzea (bai/ez).

### **3. jarduera: Berdintasun Planari buruzko urteko plan eragileak egitea.**

Gauzatze-kronograma: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: plan eragilea egitea (bai/ez).

## **G.3. helburua: berdintasunerako aurrekontu espezifikoak egon daitezen sustatzea.**

### **1. jarduera: Berdintasun Sailari aurrekontu espezifikoak ematen jarraitzea, Sailak abiatutako ekintzak gauzatu ahal izateko.**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: alkatea eta Kontu Hartzaitza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Berdintasun Sailak abiatutako ekintzak gauzatu ahal izateko aurrekontu espezifiko bat egotea honako arlo hauetarako: kirola, kultura, gazteria, hezkuntza, kontzientziazioa, emakumeen aurkako indarkeria... (bai/ez).

**G.4. helburua: berdintasunerako eta aniztasunerako komunikazioa sustatzea, eta barruko zein kanpoko komunikazioan hizkuntza ez sexista erabiltzeari garrantzia ematea.**

**1. jarduera: Tokiko Gobernu Batzordearen aktak berrikusten eta egokitzen jarraitzea, hizkuntza ez sexista erabiltzeko.**

Gauzatze-kronograma: 2015.

Nork: alkatea eta Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: zuzendutako dokumentu kopurua eta berrikusitako akta kopurua.

**2. jarduera: komunikazio-espazio bat sortzea, teknologia berrien laguntzaz, gazteei Berdintasun Sailak antolatzen dituen jardueren berri eman ahal izateko.**

Gauzatze-kronograma: 2015eko lehenengo hiruhilekoa.

Nork: alkatea eta Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Komunikazio-espazioa sortzea (bai/ez).

**3. jarduera: Berdintasun Plana erakunde barruan zein kanpoan ezagutaraztea.**

Gauzatze-kronograma: 2015.

Nork: alkatea eta Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Berdintasun Plana erakunde barruan ezagutaraztea (bai/ez).

Berdintasun Plana erakundetik kanpo ezagutaraztea (bai/ez).

**4. jarduera: Berdintasun Planak emandako aurrerapausoei buruzko informazioa aldian-aldian helaraztea Udaleko langileei.**

Gauzatze-kronograma: Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Langile tekniko eta politikoei urtero informazioa bidaltzea Berdintasun Planaren aurrerapausoei buruz (bai/ez).

**5. jarduera: herritarrei aldian-aldian informazioa bidaltzea (*Hauxe Daren bitartez*), bai eta komunikabideei ere, Berdintasun Planaren aurrerapausoei buruz.**

Gauzatze-kronograma: aldian-aldian, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: alkatea eta Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: herritarrei eta komunikabideei informazioa bidaltzea egindako jardueri buruz (bai/ez; erabilitako bitartekoak).

### **G.5. helburua: Udaleko sailek egunerokoan egiten duten lanean genero-ikuspegia txerta dadila sustatzea**

**1. jarduera: Udaleko sailekin bilerak antolatzea, egiten dituzten ekintzetan genero-ikuspegia nola txertatu aholkatzeko eta lan horretan laguntzeko.**

Gauzatze-kronograma: Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Udaleko sailekin bilerak egitea, genero-ikuspegia lantzeko (bai/ez; antolatutako bilera kopurua).

**2. jarduera: Udalak ekoizten duen informazio guztiari buruzko datuak biltzeko era aldatzea, ikerketa, inkesta, txosten, estatistika, memoria eta azterketa guztietan datuak sexuaren arabera bereizten direla bermatzeko, hala Udalak egindakoak direnean nola kontratatutako norbaitek egiten dituenen.**

Gauzatze-kronograma: 2016.

Nork: Berdintasun Saila eta Udaleko gainerako sailak.

Betetze-mailaren adierazlea: Sexuaren arabera sailkatutako datuak, estatistikak eta informazioa, oro har (bai/ez).

**3. jarduera: eraginari buruzko aldez aurreko txostenak egitea Gazteria eta Hezkuntza Saitetan.**

Gauzatze-kronograma: 2017.

Nork: Berdintasuna, Gazteria eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: genero-ikuspegia duten udal-araudiei jarraituz egin diren jarduketan kopurua. Eraginari buruzko aldez aurreko txosten kopurua.

**4. jarduera: Udalak sustatzen dituen kontratu, diru-laguntza eta hitzarmen publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko baldintzak txertatzea.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Idazkaritza eta Udaleko sail guztiak.

Betetze-mailaren adierazlea: berdintasunari buruzko baldintzak dituzten kontratu, diru-laguntza eta hitzarmen publiko kopurua.

**G.6. helburua: Udalak abiatzen dituen ekintzetan emakumeen eta gizonen parte-hartze parekidea sustatzea.**

**1. jarduera: Udalak sustatzen dituen prozesu parte-hartzaileetan emakumeen eta gizonen partaidetza parekidea dela bermatzea eta berrikustea (epaimahaietan, lehiaketetan...).**

Gauzatze-kronograma: aldian-aldian, Plana indarrean dagoen bitartean.

Nork: Udaleko sail guztiak.

Betetze-mailaren adierazlea: emakume eta gizonen presentzia parekidea duten prozesu parte-hartzaileak (bai/ez). Batzordeetan, epaimahaietan... dagoen emakume eta gizon kopurua.

**G.7. helburua: Udaleko langileak kudeatzeko genero-ikuspegia aintzat hartzea.**

**2. jarduera: genero-berdintasuna txertatzea langileak kontratatzeke lehiaketan (edo oposizioen) ikasgai-zerrendan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 17.4 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz.**

Gauzatze-kronograma: Planaren iraunaldian.

Nork: Langileen Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: genero-berdintasuna ikasgaien zerrendan txertatu duten oposizioen kopurua eta mota.



## 1. ARDATZA: BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

---

Gaur egun ikus daiteke berdintasun-helbururantz zenbait aurrerapauso eman direla; hala ere, gure gizartean desberdintasunak eta emakumeen diskriminazioak lekua dute oraindik. Hori dela eta, gizonak pribilegio handiagoak dituzte eta emakumeak mendean izaten jarraitzen dute. Desberdintasun eta diskriminazio horiek ez dira sortzen soilik eskubideak, boterea eta baliabide zein *onura ekonomikoak eta sozialak eskuratzeko hasierako baldintzei dagokienean, baizik eta horiek benetan gauzatzeko eta kontrolatzeko baldintzei dagokienez ere.*

Emakumeen eta gizonen arteko harreman pertsonaletan eta gizartekoetan botere-oreka handiagoa lortzeko prozesuan aurrera egiteko, nazioarteko komunitateak pentsatu du, beste helburu eta lan-estrategia batzuen artean, beharrezkoa dela emakumeen ahalduntzearen alde lan egitea, bizi duten desberdintasun-egoeraz jabetu daitezten, autonomia pertsonal handiagoa izan dezaten eta eragin handiagoa izan dezaten (hala banaka nola kolektibo gisa) boterean eta erabakietan parte hartzeko orduan, dagokien herritar oso izaera baliatuz. Horretarako, ez dugu ahaztu behar ezinbestekoa dela urratsak ematea emakume guztiek beren eskubideak eta baliabide ekonomikoak nahiz sozialak izateko, gauzatzeko eta kontrolatzeko.

“Ahalduntze” terminoa ingelesezko empowerment terminoa literalki itzultzetik dator; termino horrek “ahalmena lortzea” esan nahi du, indarra hartuz, banaka zein kolektibo gisa, gizartean, ekonomian eta politikan. Ahalduntzearen estrategia Nazio Batuen Emakumeari buruzko III. Mundu Biltzarrean aipatu zen (Nairobi, 1985), baina nazioarteko garapen eta indar handiagoa lortu zuen, estrategia gisa, Emakumeari buruzko IV. Mundu Biltzarrean (Pekin, 1995).

Beraz, esan dezakegu emakumeen ahalduntzeak banakako kontzientziazio-prozesuari eta ahalmen eta autonomia pertsonal handiagoari egiten diola erreferentzia (baliabideak eskuratzeko, gauzatzeko eta kontrolatzeko ahalmena), baita taldeko indartzeari ere, emakumeei gizartean parte hartzea, eragina izatea eta erabakiak hartzea ahalbidetze aldera.

Emakumeen ahalduntzea emakumeek autonomia pertsonala eta herritar oso izaera lortzeko balio duen estrategia bat dela esan dezakegu, beraz. Aldi berean, berdintasun-helbururantz aurrera egiteko beharrezko prozesu bat ere bada; izan ere, ahalduntzea lortzeko beharrezkoa izango da emakumeek eta gizonen parte-hartze orekatua izatea eremu pribatuan eta publikoan, eta horien arteko harremanak (pertsonalak nahiz gizartekoak) berdintasunezkoak izatea. Hori dela eta, gizonekin ere lan egin behar dugu, maskulinitate-eredu tradizionala ezbaian jar dezaten eta berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzeko prozesuan inplika daitezten, emakumeekin batera.

Hori lortzeko, baina, ezinbestekoa da balioak aldatzeko lan egitea, gizarteko rolak eta genero-estereotipoak ezabatuz; izan ere, estereotipo horiek rol tradizionaletan sailkatzen dituzte emakumeak eta gizonak, eta oztupo dira beren interes eta itxaropen pertsonalak betetzeko.

Adierazi behar da, bestalde, emakumeek gizonen taldearen aurrean kolektibo-izaera ematen dieten ezaugarri komunak badituzte ere, badaudela diskriminazio anizkoitza sorrarazten duten beste zenbait aldagai ere (klasea, adina, desgaitasuna, sexu-joera, genero-identitatea, jatorriko herrialdea, etnia, eta abar). Horrek are eragin negatiboagoa du emakumeen egoeran eta bizi-baldintzetan eta, ondorioz, baita herritar gisa dagozkien eskubideak erabat gauzatzeko aukeran ere. Hala, berdintasun-helbururantzko aurrerapena ez da berdina emakume guztientzat, ezta gizon guztientzat ere.

Ezin ditugu diskriminazioa eragin dezaketen aldagai guztiak banaka eta era isolatuan aztertu; horien guztien azterketa orokor eta sistemiko bat egin behar dugu, hobeto ulertzeko zer errealitatetan esku hartu behar dugun, eta eraginkortasun handiagoa lortzeko.

Oso garrantzitsua da diskriminazio anizkoitza kontuan hartzea, oro har, Berdintasunerako IV. Plan honetako jarduketak eta, zehazki, “Balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea” ardatzekoak diseinatzean eta martxan jartzean. Hain zuzen ere, kasu batzuetan ahultasun-arriskuan edo -egoeran dauden emakume taldeen eta, hala

badagokio, biztanleria osoaren sarbidea eta parte-hartzea ahalbidetzera zuzendutako neurriak jarri beharko dira martxan; bestea batzuetan, aldiz, emakumeen nahiz emakume eta gizonen talde espezifikotara zuzendutako neurri zehatzak jarri beharko dira martxan.

Horrez gain, gero eta nabarmenagoa da ezbaian jarri behar ditugula sexuen, generoen eta sexualitatearen ideia tradizionalak, kategoria bitar egonkor eta aldagaitz gisa, , abiapuntu gisa hartuta sexu-joera eta sexu- nahiz genero-identitatea gizarteak sortu dituela. Ikuspegi horretatik, beharrezkoa litzateke pertsonak kategoria bitarretan banatzeko ohitura gainditzea (emakumeak/gizonak, feminitatea/maskulinitatea, heterosexualitatea/homosexualitatea), sexu- eta genero-identitateari dagozkion aukera ugari baitaude. Gainera, aukera hori aldatu egin daiteke gure bizitzan zehar.

Aipatutako gaiak lantze aldera, “Balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea” ardatza hainbat esku-hartze ildotan egituratu da. Horietako bakoitzak zenbait helburu eta neurri barne hartzen ditu, aipatutako gaietako erantzuna emateko edo etorkizuneko lan baterako bidea irekitzeko. Hona hemen esku-hartze ildo horiek:

1. Genero-kontzientzia eta emakumeen ahalduntzea garatzea.
2. Balioak aldatzea, gizarteko rolak eta genero-estereotipoak baztertuz.
3. Baliabide ekonomikoak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera hobetzea.
4. Gizarte- eta kultura-baliabideak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera hobetzea.
5. Emakumeek gizartean eta politikan parte hartzea, erabakiak hartzea eta eragina izatea.

## GENERO KONTZIENTZIA ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA GARATZEA

Esku-hartze ildo honen helburua da emakumeak beren desberdintasun eta diskriminazio egoeraz jabetu daitezela ahalbidetzea, eta, aldi berean, beren ahalduntze pertsonalerako prozesua babestea. Horretarako, ahalduntze pertsonala ulertu behar dugu emakumeek beren eskubideak eta balio pertsonala aintzatesteko eta beren autoestimua hobetzeko prozesu gisa.

Emakumeak kontzientzia har dezaten eta ahalduntze pertsonalerako prozesua babeste aldera, beharrezkotzat jo da honako alderdi hauek lantzea:

1. Emakumeak bizi duten desberdintasun-egoeraz jabetzera bideratutako jarduketak garatzea.
2. Norberaren balioa indartzeko laguntza ematea helburu duten jarduketak, honako alderdi hauek indartze aldera: autoestimua, nor bere buruaren aintzat hartzea eta eskubideak eskuratzeko eta gauzatzeko aukera lortzeko prozesuak.
3. Emakumeen lidergo pertsonala sustatzera bideratutako jarduketak, norberaren eta beste pertsona batzuen interesak hobeto ulertzeko, eguneroko bizitzako eremu eta espazio guztietan.
4. Norberaren zainketara bideratutako neurriak, honako alderdi hauek barne: sexualitate askea, errespetuzkoa eta arduratsua gauzatzeko aukera izatea.

Dagoeneko adierazi dugun moduan, eta emakume askok jasan behar duten diskriminazio anizkoitza kontuan hartuta, ahulezia-arriskuan edo -egoeran dauden emakumeen sarbidea eta parte-hartzea ahalbidetzen duten neurriak martxan jartzeaz gain, beharrezkotzat jo da diskriminazio anizkoitzeko egoeran duen emakume talde espezifikoetako zuzendutako helburuak eta jarduketak diseinatzea.

Horretarako, lehenetsuna eman zaie honako helburu hauei:

1. Emakume gazteak sentibilizatzea, sexualitate askea, errespetuzkoa eta arduratsua izan dezaten.
2. Gay eta lesbianen ikusgarritasuna hobetzeko eta ahalduntzeko laguntza ematea.
3. Emakume helduak ahalduntzeko laguntza ematea.
4. Emakume etorkinak ahalduntzeko laguntza ematea.
5. Garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeak ahalduntzeko laguntza ematea, garapenerako lankidetzaren esparruan eginiko lanaren bidez.

## BALIOAK ALDATZEA, GIZARTEKO ROLAK ETA GENERO ESTEREOTIPOAK BAZTERTUZ

Berdintasunean oinarritutako gizarte baterantz aurrera egiteko, beharrezkoa da ikasitako

jokabideak eta portaerak ere aldatu behar ditugu, bai eremu publikoan bai pribatuan, banaka nahiz taldean. Sakoneko aldaketa hori egin ahal izateko, beharrezkoa da balioen, sinesmenen eta jarreraren aldaketa lantzea, baita gizarteak tradizionalki emakumei eta gizonei esleitu dizkien rolen eta estereotipoen banaketa aldatzea ere. Horren adibide dira, esaterako, lanaren sexuaren arabera banatzeko modu tradizionaletik datozen rolak eta estereotipoak.

#### BALIABIDE EKONOMIKOAK ESKURATZEKO ETA KONTROLATZEKO AUKERAK HOBETZEA

Berdintasunerako politiken baitan, funtsezkoa da gero eta emakume gehiagok enplegua lortzea eta horri eustea, lan-merkatuarekin zerikusia duten beste zenbait faktoreen artean; izan ere, emakumeen autonomia ekonomikoa ahalbidetzeaz gain, ahalmena, baliabideak eta irabaziak izateko eta kontrolatzeko aukera ematen die.

Emakumeek lan-eremuan duten egoera aztertu ahal izateko, beharrezkoa da hainbat faktore kontuan izatea, esaterako: emakumeek enplegua lortzea eta horri eustea, emakumeen igoera profesionala, emakume eta gizonen kopurua kontratu eta lanaldi motaren arabera, emakumeek jarduera-sektore desberdinetan eta maila profesional desberdinetan duten egoera, emakumeen presentzia zuzendaritza-kontseiluetan eta administrazio-kontseiluetan, soldaten aldea, eta abar.

#### GIZARTE ETA KULTURA BALIABIDEAK ESKURATZEKO ETA KONTROLATZEKO AUKERAK HOBETZEA

Baliabide ekonomikoak eskuratzeko garaian generoen artean dagoen aldeak gizarte- eta kultura-baliabideak eskuratzeko unean ere desberdintasunak dakartza, bistakoa denez. Hori dela eta, beharrezkotzat jo da esku-hartze ildo bat ezartzea gizarte- eta kultura-baliabideak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukerak hobetzeko. Ildo horretako jarduketak hiru eremu barne hartuko ditu: euskara, kirola eta kultura.

Kirolari dagokionez, emakumeek gizonak baino kirol gutxiago egin ohi dute, eta gaztetan utzi egiten dute, nahiz eta beranduago berriz hasten diren. Kirol federatuan emakume gutxiago daude gizonak baino. Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak 2002an Itxaso proiektuaren baitan eginiko azterlan batek neska gazteek kirola

uztearekin lotutako zenbait ondorio zehaztu zituen. Horien artean, hauek nabarmendu behar dira:

- Kirolaren munduak egitura maskulinoa du.
- Kirola egiten jarraitzeko zailtasunak daude, egiturari dagokionez, adin zehatz batean; hain zuzen ere, eskola-kirol federatura, kadete kategoriara, igaro behar denean (13-14 urte).
- Ez dago kirol-antolakuntza neskei egokitzeko programa espezifikorik; lehengo kirol-antolakuntza neskei zabaldu besterik ez da egin.
- Eskolako kirol-jardueraren eta klubetako jarduera antolatuaren arteko lotura nahiko ahula izaten da oro har, batez ere, jarduera federatura igarotzeak dakarrenari buruzko informazioari dagokionez. Informazio hobea izateak etsipena sortzea eta kirola uztea saihestuko luke.
- Neska gazteen artean kirola sustatzen duten eredu eta estimulu positibo gutxi daude.
- Lotura dago orientazio profesionalera bideratutako jardueren eta kirola uztearen artean; izan ere, neska gazteek balio gutxiago ematen diote kirolari eskolaz kanpoko beste jarduera batzuei baino.
- Nesken mundu emozionalak harreman gutxiago du kirolarekin mutilenak baino.

## EMAKUMEEK GIZARTEAN ETA POLITIKAN PARTE HARTZEA, ERABAKIAK HARTZEA ETA ERAGINA IZATEA

Indartze kolektiboa emakumeen mugimendu asoziatiboak eginiko lanari esker gertatu da; izan ere, berdintasunerantz aurrera egiteko gizarte-aldaketa sakonak sorrarazi ditu. Aldaketa horiek ezinezkoak lirateke mugimendu horren funtsezko ekarpenik gabe eta anonimatuan lan egiten duten eta aldaketa horiek gauzatzea ekarri duten emakume eta gizon guztien lanik gabe.

Berdintasunerako IV. Plan honen baitan funtsezkotzat jotzen da udalerriko emakumeen mugimendu asoziatiboa ikusgarri egitea eta eginiko lanari balioa ematea, baita mugimendu horrek parte-hartzerako eta lankidetzarako bitartekari gisa izan duen zeregina aitortzea ere, emakume eta gizonen arteko udal-politikak diseinatzeko, horien segimendua egiteko eta ebaluatzeko. Berebiziko eragina izan dute udal-politikan, kontuan izanda beren ibilbidea, hausnarketa, ezagutza eta genero-berdintasuna lortzeko

inplikazioa. Ezin dugu alde batera utzi, halaber, genero-berdintasunean bereziki inplikatu gabeko beste sare asoziatibo batzuen parte-hartzea eta inplikazioa, ezta elkarre bateko kide ez diren herritarrena ere.

Balioak aldatzeko eta emakumeak ahalduentzeko ardatz honetan honako ekintza hauek gauzatu dira:

PROGRAMA: AUTONOMIA PERTSONALA ETA BALIOEN ALDAKETA

### **Ah.l. helburua: autonomiaren garapena eta genero-kontzientziazioa ahalbidetzea**

**1. jarduera: berdintasunarekin, emakumeen aurkako indarkeriarekin eta ahalduentzearekin zerikusia duten alderdiak lantzea pobrezia ekonomikoko egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden emakumeei zuzendutako prestakuntza-programetan.**

Gauzate-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Gizarte Ekintza Saila eta Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: berdintasunarekin, emakumeen aurkako indarkeriarekin eta ahalduentzearekin zerikusia duten gaiak lantzen dituzten emakumeei zuzendutako prestakuntza-programak (bai/ez). Prestakuntza-programetan parte hartzen duten emakumeen kopurua.

**2. jarduera: Amurrioko edozein adinetako emakumeei eta, bereziki, gazteei zuzendutako ahalduentze-tailerrak egitea.**

Gauzate-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila, Aurreraka Emakumeen Elkarte eta Gazteria Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Amurrioko emakumeei zuzendutako ahalduentze-tailerrak egitea (bai/ez). Parte hartzen duten emakumeen kopurua eta mota. Parte-hartzaileen balorazioak.

**Ah.2. helburua: gazteen artean, oro har, ezagutza-maila areagotzea gizarte berdinzale bat zer den eta zergatik den beharrezkoa jakiteari dagokionez; horrez gain, neska-mutilen balioak eta jarrerak aldatzea, berdintasunaren alde eginez.**

**1. jarduera: Generoa eta Gizarte Aldaketa hautazko irakasgaia ematea Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten ikastetxe guztietan (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017. urtea eta hurrengoak.

Nork: Hezkuntza Saila eta GAPPA.

Betetze-mailaren adierazlea: Generoa eta Gizarte Aldaketa irakasgaia eskaintzen duten ikastetxeen kopurua. Urtero irakasgaia aukeratzen duten ikasleen kopurua.

**2. jarduera: ikastetxeei laguntza ematea, Herritartasunerako Hezkuntza irakasgaien emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean sakontzeko (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2016. urtea eta hurrengoak.

Nork: Hezkuntza Saila eta GAPPA.

Betetze-mailaren adierazlea: urte bakoitzean lantaldeak dituen parte-hartzaileen kopurua. Eginiko proposamen kopurua. Zabaldutako curriculum-proposamenen kopurua, urtearen eta dataren arabera.

**3. jarduera: probintziako emakume gazteen elkartean eta Amurrioko nesken arteko topaketak sustatzea, horien berri emanez lonjetan eta ikastetxeetan (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Hezkuntza Saila eta Gazteria Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: parte hartzen duten gazte feministen elkartean kopurua eta topaketara bertaratutako pertsonen kopurua. Parte hartzen duten emakumeen elkartean kopurua eta topaketara bertaratutako pertsonen kopurua.



### **Ah.3. helburua: balio-aldaketa sustatzea, sexuen araberako gizarteko rolak eta estereotipoak baztertuz.**

#### **1. jarduera: hezkuntza-jarduerak antolatzea Amurrioko gurasoentzat, baita haurrentzat ere.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila, Kultura Saila, Gazteria Saila, Hezkuntza Saila eta Euskara Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: hezkidetza-jarduerak antolatzea (bai/ez). Jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua, adinaren eta sexuaren arabera; balorazioak.

#### **2. jarduera: sentsibilizazio-kanpainak antolatzen jarraitzea egun esanguratsuetan; esaterako, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko egunean.**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Berdintasun Saila, Kultura Saila, Gazteria Saila, Hezkuntza Saila, Euskara Saila, Kirol Saila, Amurrio Antzokia...

Betetze-mailaren adierazlea: Berdintasunarekin zerikusia duten egun esanguratsuen harira eginiko sentsibilizazio-kanpainen kopurua. Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta adinaren arabera.

#### **3. jarduera: genero-ikuspegia barne hartzen duten bizikidetza planak dituzten ikastetxeei babesa ematen jarraitzea (esaterako, Zaraobe Institutua), eta gainerako ikastetxeek ere halako planak egin ditzaten sustatzea.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: bizikidetza-plan berriak (bai/ez). Lehendik bizikidetza-plan bat duten ikastetxeekin lankidetzan aritzeko asmoz eginiko jardueren kopurua eta mota.

#### **4. jarduera: emakumeen kirol-jarduera sustatzeko sentsibilizazio-jarduerak antolatzea.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila eta Kirol Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: emakumeen kirol-jarduera sustatzeko sentsibilizazio-jarduerak antolatzea (bai/ez). Jardueretan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopurua.

**5. jarduera: gizonen zuzendutako ikastaroak egitea, balio- eta rol-aldaketa sustatzeko.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: gizonen zuzendutako ikastaroak egitea, balio- eta rol-aldaketa sustatzeko (bai/ez). Parte hartu duten gizonen kopurua.

PROGRAMA: AHALDUNTZE PERTSONALA ETA TALDEKOA

**Ah.4. helburua: neska-mutilek beren osasunarekiko duten erantzukizuna eta zainketa areagotzea, genero-erolek arriskuak hartzean duten eragina kontuan hartuta, eta gauzatzen diren ekintzetan arrisku horien berri esplizituki ematea.**

**1. jarduera: gazteentzako autozainketa-tailerra egitea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017.

Nork: Gazteria Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: tailerra egitea (bai/ez). Bertaratu diren gazteen kopurua, sexuen arabera berezita.

**Ah.5. helburua: nesken talde bat eta mutilen beste bat sortzea, balio-aldaketa sakon bat lortzeko helburuarekin lan egiteko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez.**

**1. jarduera: neska gazteak ahalduntzeko espazio bat sortzea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila eta Gazteria Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: neskentzako eta emakumeentzako ahalduntze-eskola sortzea (bai/ez). Urtero eginiko ikastaro kopurua. Parte hartzen duten nesken eta emakumeen kopurua. Bertaratzen direnen asebetetze-maila.

**2. jarduera: mutilen lantaldea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2018.

Nork: Berdintasun Saila eta Gazteria Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: mutilen lantaldea sortzea (bai/ez). Parte hartzen duten mutilen kopurua. Urtero eginiko ikastaro edo jarduera kopurua. Bertaratzen direnen asebetetze-maila.

**3. jarduera: tutoretzetan autonomia eta ahalduntzea lantzeko gidak banatzea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2016. urtea eta hurrengoak.

Nork: Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarekin izandako kontaktu kopurua. Eusko Jaurlaritzan eskuragarri dauden materialen kopurua. Emandako materialen kopurua.

**Ah.6. helburua: neskek kirola eta gustuko duten jarduera fisikoa egiteko aukerak areagotzea.**

**1. jarduera: genero-ikuspegia aintzat hartzen duen kirolari buruzko azterketa (Gazteriarentzako berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017.

Nork: Kirol Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: azterketa egitea (bai/ez).

**2. jarduera: genero-ikuspegia aintzat hartzen duen kirol-programa bat diseinatzea ikastetxeentzat (Gazteriarentzako berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017. urtea eta hurrengoak.

Nork: Kirol Saila eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: genero-ikuspegia barne hartzen duen eskolaz kanpoko jardueren programa bat diseinatzea (bai/ez). Jardueren eskaintzan eginiko aldaketen kopurua. Eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzten nesken eta mutilen kopurua.

**3. jarduera: Espazioen erabilera berrikustea eta aldaketak egitea (Gazteriarentzako berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2018.

Nork: Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: espazioen erabilera berrikustea eta aldaketak egitea (bai/ez). Espazioa genero-ikuspegitik aztertu duten ikastetxeen kopurua. Jolastokian eginiko aldaketen kopurua.

**4. jarduera: udalerriko kirol-eskaintza berrantolatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta, adinarengatiko diskriminazio anizkoitzari arreta berezia eskainiz (Gazteriarentzako berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2018.

Nork: Kirol Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: ezarritako aldaketen kopurua, diagnostikoan gomendatutakoan aldean.

**Ah.7. helburua: nesken eta mutilen ikasketen dibertsifikazioa sustatzea, curriculumaren aukeraketan eragiten duten estereotipoak eta rolak ezabatzea, eta ikasleak kontzientziatzea lanbide guztietan eta bizitzako esparru guztietan parekidetasuna lortzearen garrantziaz.**

**1. jarduera: etorkizuneko emakume langileen eguna (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: parte hartzen duten nesken kopurua, adinen arabera sailkatuta.

**2. jarduera: lidergorako prestakuntza (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: parte hartzen duten emakumeen kopurua, adinen arabera sailkatuta.

**3. jarduera: emakume profesionalen ikusgarritasuna hobetzeko eta horiei garrantziaren inguruan sentsibilizatzeko lana (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2016.

Nork: Hezkuntza Saila eta Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: parte hartzen duten Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Hezkuntzako eta Batxilergoko prestakuntza arautuko ikastetxeen kopurua. Parte hartzen duten mutil eta nesken kopurua. Parte hartzen duten enpresen kopurua.

**4. jarduera: orientazio akademiko ez sexistarako materialak ematea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017.

Nork: Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarekin identifikatutako materialen kopurua. Ikastetxe bakoitzera bidalitako materialen kopurua. Ikastetxe bakoitzean erabilitako materialen kopurua. Orientazio akademikoen inguruan osatutako lantaldeen kopurua. Taldeetan parte hartu duten mutilen eta nesken kopurua.

**5. jarduera: enplegu-zerbitzuen jarduera aztertzea, genero-ikuspegitik begiratuta, arreta berezia eskainiz adinaren faktorea ere barne hartzen duen diskriminazio anizkoitzari (Gazteriarentzako berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017.

Nork: Langileen Saila eta Amurrio Bidean.

Betetze-mailaren adierazlea: ikerketa egitea (bai/ez). Emakume erabiltzaileen balorazioa, adinaren arabera sailkatuta. Emakume gazteen enplegarritasuna hobetze aldera proposatutako neurrien kopurua. Proposatu diren eta emakume gazteengan eragina izan dezaketen neurrien kopurua.

**Ah.8. helburua: emakumeek enplegua lortzeko dituzten aukerak eta beren enplegu-baldintzak hobetzea, baita beren igoera profesionala ere.**

**1. jarduera: emakumeen kontratazioa sustatzea inguruko enpresetan.**

Gauzatze-kronograma: 2017. urtea eta hurrengoak.

Nork: alkatea, Gizarte Ekintza Saila, Amurrio Bidean eta Langileen eta Enpleguaren Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: emakumeen kontratazioa sustatze aldera kontaktatutako enpresen kopurua. Inguruko enpresetan kontratatutako emakume kopurua.

**2. jarduera: enplegua sustatzeko programak egitea pobrezia-arriskuan edo -egoeran eta/edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden emakumeekin.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila, Gizarte Ekintza Saila, Amurrio Bidean eta Langile eta Enplegu Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: enplegua sustatzeko programak egitea pobrezia-arriskuan edo -egoeran eta/edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden emakumeekin (bai/ez).

**3. jarduera: Amurrio Bideanen laguntzarekin negozio bat jarri duten emakume ekintzaileak saritzen jarraitzea.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Amurrio Bidean eta Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Saritutako emakume kopurua.

**4. jarduera: Pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzeko sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, eskualdeko sare ekonomikoari dagokionez.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila, Amurrio Bidean eta Langile eta Enplegu Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: eskualdeko sare ekonomikora zuzenduriko sentsibilizazio kanpainak egitea, pertsonen bizitza pertsonala, familiako eta lanekoa bateratzeko (bai/ez).

**5. jarduera: Emakundek eta beste erakunde batzuek berdintasunerako planak egiteko ematen dituzten diru-laguntzen berri ematea enpresei.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Alkatetza, Berdintasun Saila eta Amurrio Bidean.

Betetze-mailaren adierazlea: diru-laguntzen berri izan duten enpresen kopurua.

Informazioa ematea Amurrioko enpresei (bai/ez).

**Ah.9. helburua: gizarte-baliabideak lortzeko bidea hobetzea, arreta berezia eskainiz bazterkeria anizkoitzeko egoerei.**

**1. jarduera: Emakumeentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuari eustea.**

Gauzatze-kronograma: Planak indarrean jarraitzen duen bitartean.

Nork: Gizarte Ekintza Saila eta Arabako Foru Aldundia.

Betetze-mailaren adierazlea: Emakumeentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua egotea (bai/ez).

**2. jarduera: Emakumeentzako Arreta Psikologikoko Zerbitzuari eustea.**

Gauzatze-kronograma: Planak indarrean jarraitzen duen bitartean.

Nork: Gizarte Ekintza Saila eta Arabako Foru Aldundia.

Betetze-mailaren adierazlea: Emakumeentzako Arreta Psikologikoko Zerbitzua egotea (bai/ez).

**3. jarduera: enplegua sustatzeko programak egitea pobrezia-arriskuan edo -egoeran eta/edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden emakumeekin, genero-ikuspegia kontuan hartuta.**

Gauzatze-kronograma: 2016.

Nork: Berdintasun Saila, Gizarte Ekintza Saila, Amurrio Bidean eta Lanbide.

Betetze-mailaren adierazlea: enplegua sustatzeko programak egitea pobrezia-arriskuan eta/edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden emakumeekin, genero-ikuspegia kontuan hartuta (bai/ez).

PROGRAMA: PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

**Ah.10. helburua: emakumeen mugimendu asoziatiboa eta sare asoziatiboan duten parte-hartzea sustatzea.**

**1. jarduera: Emakumeen Elkartarekin (AURRERAKA) eta inguruko emakume-elkartekin lankidetzan jarraitzea.**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: Amurrioko Emakumeen Elkartarekin egindako lankidetzak-ekintzen kopurua eta mota.

**2. jarduera: emakume gazteen elkarte baten sorrera sustatzea.**

Gauzatze-kronograma: 2016.

Nork: Berdintasun Saila eta Gazteria Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: emakume gazteen elkarte sortzea (bai/ez).



**3. jarduera: Aiarako Eskualdeko Emakumeen Topaketa antolatzen laguntzea eta emakumeen sareak sortzea, zenbait alderdi kontuan izanda: adina, dibertsitate funtzionala, jatorria, eta abar.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila eta Aiarako Eskualdea.

Betetze-mailaren adierazlea: emakumeen topaketa antolatzen laguntzea (bai/ez).

Emakumeen arteko sareak sortzea, zenbait alderdi kontuan izanda (bai/ez).

Parte-hartzaile kopurua.

**4. jarduera: Emakumeen Elkarteari behar duen aholkularitza ematen jarraitzea, eta gainerako kirol-, kultura- eta bestelako elkarteei ere aholkuak ematea, beren jarduketetan genero-ikuspegia sar dezaten.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: eginiko kontsulta kopurua. Genero-ikuspegia barne hartu duten ekintzen kopurua.

**5. jarduera: emakumeen elkartze-gaitasuna sendotzen jarraitzea, diru-laguntzak emanez.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: emakumeen elkartze-gaitasuna sendotzeko asmoz emandako diru-laguntzen kopurua. Emakumeen elkartze-gaitasuna sendotzeko emandako diru-laguntzen ehunekoa, Amurrioko Udalak guztira ematen dituen diru-laguntzei dagokienez.

**6. jarduera: Jai Batzordearen bitartez, jai parekideagoi buruzko sentsibilizazioa hedatzea eta parte-hartzea sustatzea.**

Gauzatze-kronograma: 2016. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila, Jai Saila eta Jai Batzordean parte-hartzen duten elkarteak.

Betetze-mailaren adierazlea: Jai Batzordeak jai parekideagoak lortzeko helburuarekin gauzatzen dituen sentsibilizazio eta parte-hartze ekintzen kopurua.

**Ah.11. helburua: kulturaren arloan emakumeek duten ikusgarritasuna handitzea eta sustatzea.**

**1. jarduera: emakumeak protagonista dituzten edo emakumeek sortu dituzten kultura-jarduerak antolatzen jarraitzea.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Kultura Saila, berdintasun Saila, Antzerki Saila eta Jai Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: emakumeak protagonista dituzten edo emakumeek sortu dituzten kultura-jardueren kopurua.

**Ah.12. helburua: emakume kirolarien jarduerari ikusgarritasuna ematea.**

**1. jarduera: kirol-programazio orokorrean eta jaietan emakume kirolariak ezagutarazteko jarduerak antolatzea.**

Gauzatze-kronograma: 2016. urtea eta hurrengoak.

Nork: Kirol Saila eta Jai Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: emakume kirolariak ezagutarazteko jaietako eta kirol-programazioa egitea (bai/ez).

## **2. ARDATZA: GIZARTE ANTOLAERA ERANTZUNKIDEA**

---

Lana sexuaren arabera banatu izan da tradizionalki, eta hala, emakumeei doako lana esleitu zaie, eremu pribatukoa, eta gizonei, berriz, lan-merkatuko lan ordaindua. Horrek, emakumeen eta gizonen erantzukizunak eta zereginak bereizteaz gain (balio eta gizarte-aintzatespen desberdinekin), eremuak bereiztea ere ekarri du: eremu pribatua eta eremu publikoa. Kasu askotan, beharrezkoa izan da bereizketa hori gainditzea.

Ardatz honek eremu pribatua izango du aztergai, bereziki, etxeko lanek eta zainketa-lanek dakartzaten erantzukizunak eta zereginak. Hala, etxean egiten den lanak duen garrantzia aztertuko dugu. Pertsona guztiok, gure bizitzako unereren batean edo bestean (nagusiki, haurtzaroan eta zahartzaroan, gaixo gaudenean, desgaitasunen bat dugunean...), edo bizitza osoa zehar, beste pertsona batzuen zainketak behar izaten ditugu. Zainketak jasotzeak harremana du, beraz, herritar guztiekin eta, ondorioz, baita pertsona guztien ongizate fisiko nahiz psikologikoarekin ere. Hori dela eta, lehenetsuna eman behar diogu pertsona guztiek eta alde guztiek (gizartea, agintari publikoak, enpresak) dagokien “erantzukizun kuota” beren gain hartzeari, zainketa-lanak gauzatzeari dagokionez. Horrek gizartearen garapenean eta bertako herritarren ongizatean eragiteaz gain, eragin argia eta zuzena izango du emakumeen bizi-baldintzen eta gizartean duten tokiaren hobekuntzan, baita, oro har, berdintasuna lortzeko helburua betetzeko aurrerapausoetan ere.

Hori dela eta, ardatz honi emandako izenaren bidez (Gizarte Antolaera Erantzunkidea), inplikatu nahi dira, batetik, gizonak, zainketa-lanei eta -erantzukizunei dagokienez emakumeekiko duten desoreka kontuan izanda; bestetik, agintari publikoak eta enpresak, aipatu dugun moduan. Horretarako, ardatz honek gizarte erantzunkide bat eraikitzen lagunduko duten helburuak eta neurriak proposatzen ditu.

Ardatz hau honako esku-hartze ildo hauetan antolatuta eta banatuta dago:

1. Zainketaren eta erantzunkidetasunaren kontzientziazioa.
2. Emakumeen eta gizonen denbora-erabilerak: etxeko lanak eta zainketa-lanak

ikusgarri egitea, duten balioa aitortzea eta kontuan hartzea.

3. Familiako bizitzaren eta lanaren edo enplegu-bilaketaren arteko kontziliazio erantzunkidea.

4. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntza emateko gizarte- eta garapen-zerbitzuak eta -bitartekoak.

Kasu honetan, 3. esku-hartze ildoaren oinarria familiako bizitzaren eta lanaren arteko kontziliazio erantzunkidea da, baina nabarmendu behar da funtsezkoa dela “bizitza pertsonalari” denbora eskaintzea eta familian edo lanean ohikoagoak diren beste zeregin eta erantzukizun batzuekin kontziliatzeko mekanismoak izatea.

## GIZARTEA KONTZIENTZIATZEA ZAINKETAREN ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ETIKAREN INGURUAN

Esku-hartze ildo honen helburua da zainketa-lana ikusgarri egitea, duten balioa aitortzea eta kontuan hartzea. Zainketa-lanak era bidezkoan banatzeak aukera emango du gizonei, agintari publikoei eta enpresei ere badagozkien zereginen eta erantzukizunen erantzunkidetasunaren alde aurrera egiteko.

Bestalde, balioen aldaketa hau gertatuko bada, beharrezko da jarrera eta portaera aldatzea. Horri esker, azkenean, emakumeen eta gizonen arteko denbora-erabilera orekatua izango da etxeko lanei eta zainketa-lanei dagokienez, eta, ondorioz, emakumeentzako berdintasun handiagoa egongo eremu publikoan.

Denboraren erabilera nabarmen aldatu da emakumeentzat lan-merkatura sartuz doazen heinean. Alabaina, gizonak ez dira etxeko lanak eta zainketa-lanak egiten hasi, ez erritmo eta neurri berean behintzat; horrek esan nahi du emakumeak lan-eremura sartzeak lanaldi bikoitza beren gain hartzera behartu dituela. Hori dela eta, oreka handiagoa lortzeko, eta, ondorioz, eremu publiko nahiz pribatuetan berdintasun handiagoa lortzeko, beharrezkoa da gizonek etxeko lanei eta zainketa-lanei dagozkien erantzukizunak eta zereginak beren gain hartzea.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN DENBORAREN ERABILERAK: ETXEKO LANA ETA ZAINKETA-LANAK IKUSGARRI EGITEA, AINTZATESTEA ETA

## KONTUAN HARTZEA

Azkenaldian egin diren emakumeen eta gizonen denboraren erabilerei buruzko inkestetan garbi ikusi da emakumeek eta gizonek inplikazio desberdina dutela, denborari dagokionez, etxeko lanetan eta zainketa-lanetan. Horrez gain, argi geratu da lan horiek eguneroko bizitzan duten garrantzia.

Beharrezkoa da bi errealitate agerian jartzea: batetik, emakumeak direla merkatuan etxeko lanak eta zainketa-lanak egiten jarraitzen dutenak; bestetik, kasu askotan lan horiek atzerriko emakumeek egiten dituztela, gehienetan lan-baldintza txarretan.

## FAMILIAKO BIZITZAREN ETA LANAREN EDO ENPLEGU-BILAKETAREN ARTEKO KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA

Gizarte-antolamendu erantzunkidea lortzeko, ez da nahikoa gizonek eta emakumeek etxeko lanetako eta zainketa-lanetako erantzukizunak eta zereginak eta, ondorioz, espazioak eta denborak partekatzea. Beharrezkoa da, halaber, enpresak inplikatzeko.

Enpresek, beren aldetik, “erantzukizun-kuota” beren gain hartu behar dute zainketa-lanetan. Beren langileen gaixotasunak edo laneko istripuak kontuan hartzen badituzte ere, oro har ez dituzte kontuan izaten langileen familiako beste pertsona batzuek izan dezaketen mendekotasun-egoera, legeak ezartzen dituen familiako eta laneko bizitza kontziliatzeko neurriek araututako egoeretatik haratago.

## MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI LAGUNTZA EMATEKO GIZARTE ETA GARAPEN ZERBITZUAK ETA BITARTEKOAK

Gizarte-antolamendu erantzunkidea lortzeko, beharrezkoa da, halaber, administrazio publikoek ere esku hartzea, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zainketaekin lotura duten gizarteko nahiz komunitateko zerbitzu eta baliabideak emanez, eta horiek pertsona bakoitzaren eta beren familien beharretara egokituz. Gizonek eta emakumeek eremu publiko eta pribatu bera partekatuko badute (lan-merkatuko lana eta zainketei dagokiena), beharrezkoa izango da mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzea erraztuko duten gizarteko eta komunitateko zerbitzuak izatea: haur-eskolak, egoitzak, eguneko zentroak, familia zaintzaileentzako bitartekoak, eta abar. Oinarrizkoa da

zerbitzu horiek edukitzea, baina, horrez gain, beharrezkoa da horien estaldura, ordutegia eta egutegia bat etortzea mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta beren familien beharrekina.

Gizarte Antolamendu Erantzunkidearen ardatz honetan honako ekintza hauek gauzatuko dira:

**A.1. helburua: erantzunkidetasuna eta zainketaren etika sustatzen dituzten jarduerak sustatzea.**

**1. jarduera: erantzunkidetasuna sustatzeko sentsibilizazio-ekintzak egitea; esaterako, emakumeak eta gizonak ohikoak ez dituzten roletan agertzen dituzten kanpainak.**

Gauzatze-kronograma: 2017.

Nork: Berdintasun Saila, Kultura Saila, Hezkuntza Saila eta Gazteria Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: erantzunkidetasuna sustatzeko gauzatutako sentsibilizazio-ekintzen kopurua. Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren arabera; balorazioak.

**2. jarduera: erantzunkidetasuna sustatzen duten ikastaroak eta tailerrak antolatzea, gizon zein emakumeentzat.**

Gauzatze-kronograma: 2017.

Nork: Berdintasun Saila eta Kultura Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: erantzunkidetasuna sustatzen duten tailerren eta ikastaroen kopurua. Jardueran parte hartu duten pertsonen kopurua.

**3. jarduera: antolatzen diren jardueretan kontziliazio-zerbitzuak eskaintzen jarraitzea.**

Gauzatze-kronograma: 2015. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila, Kultura Saila, Hezkuntza Saila, Euskara Saila, Ingurumen Saila, Kirol Saila, eta abar.

Betetze-mailaren adierazlea: kontziliazio-zerbitzuak Amurrioko Udaleko sailek antolatzen dituzten jardueretan (bai/ez).

**A.2. helburua: gurasoen arteko erantzunkidetasuna areagotzea hezkuntza-zereginetan, eta seme- alabak berdintasun handiagoz tratatzea hezkuntzari dagokionez.**

**1. jarduera: urtero tailer bat egitea, aitek beren seme-alaben zainketa-lanetan duten inplikazioa areagotzeko (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila, Gazteria Saila eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: urtero eginiko ikastaro kopurua. Bertaratzen diren aiten eta amen kopurua. Erabilitako hedapen- eta komunikazio-bitartekoak.

**2. jarduera: urtero tailer bat egitea, gurasoei zuzendua, seme-alabei hezkuntza parekidea emateko gakoak eta horren onurak azaltzeko (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila, Gazteria Saila eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: urtero eginiko ikastaro kopurua. Bertaratzen diren aiten eta amen kopurua. Erabilitako hedapen- eta komunikazio-bitartekoak.

**A.3. helburua: gurasoek etxeko lanetan eta zainketan duten erantzunkidetasuna areagotzea, eta gazteek etxeko lanetan eta zainketa-lanetan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzea.**

**1. jarduera: urtero, sentsibilizazio-jardunaldi bat egitea, ikastetxe guztiei irekia, nerabeek etxeko lanak eta zainketa-lanak beren gain har ditzaten sustatzeko (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2017. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila, Gazteria Saila eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: parte hartzen duten ikastetxeen kopurua. Parte hartzen duten gurasoen kopurua. Parte hartzen duten neska-mutilen kopurua. Proposatutako jarduera kopurua.

**A.4. helburua: etxeko lanek eta zainketa-lanek bizitzari eusteko duten garrantziaren ezagutza hobetzea gazteen artean. Emakumeek zein gizonek zeregin horietan duten funtzioa bereziki azpimarratzea.**

**1. jarduera: etxeko lanei eta zainketa-lanei buruzko udal-tailerak diseinatzea, gazteei zuzendutakoak (Gazteriarentzako berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2018.

Nork: Berdintasun Saila, Hezkuntza Saila eta Gazteria Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: eginiko tailer kopurua. Tailer bakoitzean parte hartu duten neska-mutilen kopurua. Neska-mutilek tailerrekin izan duten asebetetze-maila.



### **3. ARDATZA: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA ERROTIK KENTZEA**

---

Emakumeen aurkako indarkeria kezka handia da agintari publikoentzat eta gizartearentzat oro har; izan ere, larriki urratzen ditu emakumeen eskubideak.

Horrez gain, gizarte-arazo larria da; batetik, askotan gertatzen delako eta, bestetik, biktimek izaten dituzten ondorio fisikoak eta psikologikoak oso larriak izaten direlako. Kasu batzuetan, biktimen ardurapean dauden pertsonak ere jasaten dituzte ondorio horiek.

Emakumeen aurkako indarkeria da “sexua arrazoi hartuta sortzen den edozein indarkeriazko ekintza, emakumeari kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten diona, edo emakumeari sufriarazten diona, hauek barne: halako ekintzak egiteko mehatxuak, bortxa edo askatasuna arbitrarioki kentzea. Ekintza horiek bizitza publikoan nahiz pribatuan gerta daitezke”.

Indarkeria horren jatorria harreman pertsonaletan eta gizartekoetan dagoen gizon eta emakumeen arteko botere-desberdintasunean oinarritzen da. Alabaina, ez dugu ahaztu behar, emakumeek gizonen aurrean talde-izaera ematen dieten ezaugarri komunak badituzte ere, beste diskriminazio- eta zahurgarritasun-egoera batzuetan ere egon daitezkeela, eta horrek aniztasun handia eragiten duela bakoitzaren arazoei dagokienez: dibertsitate funtzionala edo desgaitasuna, sexu-joera, immigrazioa, bizi-zikloko etapa bereziak (esaterako, haurdunaldia), adin nagusikoak izatea, eta abar. Hori dela eta, “diskriminazio anizkoitza” deiturikoa sortzen da.

Amurrioko Udalak, gizarte-arazo horren larritasuna ikusita, modu koherentean aurre egiteko gogoia, konpromisoa eta ibilbidea agertu izan ditu azken urteotan, ekintza zehatz eta isolatuetatik haratago.

Ildo horretan, 2013ko abenduaren 4an, Osoko Bilkurak onetsi egin zuen Erakundeen

Arteko Jarduera eta Koordinaziorako Udal Protokoloa, helburu honekin: genero-indarkeriaren biktimei ematen zaien arreta hobetzea.

Emakumeenganako indarkeria errotik kentzeko ardatzean, honako ekintza hauek gauzatuko dira:

PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

### **I.1. helburua: indarkeriazkoak ez diren portaera-ereduen garapena sustatzea.**

#### **1. jarduera: sentsibilizazio-kanpainak antolatzen jarraitzea azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean.**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Berdintasun Saila, Kultura Saila, Gazteria Saila, Hezkuntza Saila, Euskara Saila, Kirol Saila, Amurrio Antzokia...

Betetze-mailaren adierazlea: berdintasunarekin zerikusia duten egun esanguratsuen harira eginiko sentsibilizazio-kanpainen kopurua. Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta adinaren arabera.

#### **2. jarduera: EAEn gertatzen diren emakumeen aurkako erasoak publikoki salatzen jarraitzea.**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Gizarte Ekintza Saila, Berdintasun Saila eta Protokoloaren Koordinazio Mahaia.

Betetze-mailaren adierazlea: salaketa publikoak eta sistematikoak egitea (bai/ez).

#### **3. jarduera: jaietan gertatzen diren sexu-erasoen aurkako sentsibilizazio-kanpainak egitea.**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Berdintasun Saila, Jaien Saila eta Emakumeen Elkarteak.

Betetze-mailaren adierazlea: jaietan gertatzen diren sexu-erasoen aurka eginiko sentsibilizazio-kanpainak (bai/ez).

#### **4. jarduera: sexu-erasoen eta eraso sexisten aurkako protokolo bat egitea eta onestea Amurrioko Udalean.**

Gauzatze-kronograma: 2015.

Nork: Alkatetzak, Berdintasun Saila, Langile eta Sindikatu Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: sexu-erasoen eta eraso sexisten aurkako protokolo adostu bat egotea Udalean: Sexu-erasoen eta eraso sexisten aurkako protokoloa Amurrioko Udalean (bai/ez).

### **I.2. helburua: mendekotasuna eta autonomiarik eza sorrarazten duten edo nesken ahalduntze pertsonala gutxitzen duten harreman afektiboen kopurua murriztea.**

#### **1. jarduera: bikote-harremanetako indarkeriari eta mikro-indarkeriari buruzko prestakuntza ematea ikastetxeetan (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Berdintasun Saila eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: bertaratutako pertsonen kopurua, ikastegiaren eta sexuen arabera bereizita.

#### **2. jarduera: Beldur Barik lehiaketa sustatzeko ekintzak egitea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Berdintasun Saila eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: prestakuntza-orduen kopurua. Emandako edukiak. Ikastaroan parte hartu duten neska-mutilen kopurua. Erabilitako hedapen-kanalak eta -sistemak. Beldur Barik lehiaketan parte hartzen duten neska-mutilen kopurua.

### **I.3. helburua: indartzea sexu-hezkuntza, bizitza sexualak eskaintzen duen aukeratan aniztasunaren aurreko tolerantzia eta norberaren eta besteen segurtasunarekiko errespetua.**

**1. jarduera: aniztasun afektibo-sexualari buruzko proiektuen ezarpena koordinatzea ikastetxeetan (Gazteriarentzako berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Berdintasun Saila eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: hezkuntza afektibo-sexualeko prestakuntza gauzatzen duten ikastetxeen kopurua. Parte hartu duten gazteen kopurua, sexuen arabera sailkatuta. Berdintasuna sustatzearekin lotuta emandako edukiak. Ikastetxe bakoitzeko prestakuntza-orduak.

**2. jarduera: ziber-jazarpenari buruzko azterketa eta jarduketa-tailerrak (Gazteriarentzako berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2018.

Nork: Berdintasun Saila eta Hezkuntza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: ikerketan parte hartu dutenen kopurua, sexuen eta adinaren arabera sailkatuta. Proposatutako neurrien kopurua. Ezarritako neurrien kopurua.

PROGRAMA: ARRETA HOBETZEA

**I.4. helburua: emakumeen aurkako portaeren prebentzioa hobetzea.**

**1. jarduera: gazteentzako tailerrak antolatzea, indarkeriazko portaerak eta portaera sexistak prebenitzeko, eta tratu onak sustatzeko.**

Gauzatze-kronograma: 2018.

Nork: Berdintasun Saila, Hezkuntza Saila eta Gazteria Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: gazteei zuzenduta tailerrak egitea, indarkeriazko portaerak eta portaera sexistak prebenitzeko, eta tratu onak sustatzeko (bai/ez).

**2. jarduera: gizonei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak antolatzea, gai hauei buruz: berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta erantzunkidetasuna.**

Gauzatze-kronograma: 2017.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: gizonei zuzenduriko sentsibilizazio-jarduerak egitea, honako gai hauei buruz: berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeria eta erantzunkidetasuna (bai/ez). Jardueretan parte hartu duten gizonen kopurua, adinaren arabera.

**I.5. helburua: emakumeen aurkako indarkeriari eta sexu-erasoei ematen zaien arreta eta prebentzioa hobetzea ikastetxeetan. Ziber-jazarpen kasuak aztertzea eta murriztea, genero-ikuspegia kontuan hartuta.**

**1. jarduera: Eusko Jaurlaritzaren ikastaroei buruzko informazioa ematea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: Berdintasun Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: informazioa jaso duen ikastetxe kopurua. Ikastetxeak informatzeko erabilitako bideak. Eginiko jarduera kopurua, ikastetxeen arabera sailkatuta.

**2. jarduera: lantaldeak egitea ikastetxeekin, emakumeen aurkako indarkeriaren protokoloaren segimenduaren harira (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).**

Gauzatze-kronograma: 2016. urtea eta hurrengoak.

Nork: Berdintasun Saila, Gizarte Ekintza Saila, Hezkuntza Saila, GAPP, Arabako Foru Aldundia, Ertzaintza eta Udaltzaingoa.

Betetze-mailaren adierazlea: parte hartzen duten ikastetxeen kopurua. Bertaratutako pertsonen kopurua, ikastegiaren eta sexuaren arabera sailkatuta. Bilkura bakoitzean lortutako ondorio kopurua.

PROGRAMA: INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ARRETA

## **I.6. helburua: indarkeriaren biktimei arreta eta babes osoa bermatzea.**

**1. jarduera: Erakundeen arteko Jarduera eta Koordinaziorako Udal Protokoloaren Koordinazio Mahaiari jarraipena ematea, genero-indarkeriaren biktimentzako arreta hobetzeko.**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018.

Nork: berdintasun saila, Gizarte Ekintza Saila, GAPPa, Arabako Foru Aldundia, Ertzaintza eta Udaltzaingoa.

Betetze-mailaren adierazlea: bilkurak egitea (bai/ez).

**2. jarduera: genero-indarkeriaren biktimei ematen zaien arreta hobetzeko Erakundeen arteko Jarduera eta Koordinaziorako Udal Protokoloaren garapenari buruzko informazioa ematea aldi berean behin teknikari eta politikariei.**

Gauzatze-kronograma: 2015-2018

Nork: berdintasun saila eta Gizarte Ekintza Saila.

Betetze-mailaren adierazlea: aldi berean informazioa bidaltzea (bai/ez).

## JARDUERA PLANAREN LABURPEN TAULA

GOBERNAMENDUA HOBETZEKO NEURRIAK							
1. helburua: Udalean existitzen diren berdintasun-politikak koordinatzeko egiturak indartzea							
Tresna	ID	Ekintza	2015	2016	2017	2018	Sailak
G-	G.1.1	Esku-hartze programa zehatzetarako sail-arteko batzordea indartzea					Alkatetza eta sail guztiak
G-	G.1.2	Berdintasunerako Udal Espazioa mantentzea eta indartzea					Berdintasun Saila
G-	G.1.3	Erakundeen koordinaziorako egituretan parte hartzen jarraitzea (Berdinsarean, adibidez).					Berdintasun Saila
2. helburua: berdintasun-politiken ebaluazio jarraitua sustatzea							
G-	G.2.1	Berdintasun Planaren ebaluazio jarraitua egitea					Berdintasun Saila
G-	G.2.2	EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Institutuak berdintasun politikak ebaluatzeko egiten duen inkesta elektronikoa, tokian tokioa, betetzea.					Berdintasun Saila
G-	G.2.3	Berdintasun Planari buruzko urteko plan eragileak egitea					Berdintasun Saila
3. helburua: berdintasunerako aurrekontu espezifikoak egon daitezen sustatzea							
G-	G.3.1	Berdintasun Sailari aurrekontu espezifikoak ematen jarraitzea, Sailak abiatutako ekintzak gauzatu ahal izateko					Alkatetza eta Esku Hartze Saila
4. helburua: berdintasunerako eta aniztasunerako komunikazioa sustatzea, eta barruko zein kanpoko komunikazioan hizkuntza ez sexista erabiltzeari garrantzia ematea							
G-	G.4.1	Tokiko Gobernu Batzordearen aktak berrikusten eta egokitzen jarraitzea, hizkuntza ez sexista erabiltzeko					Alkatetza eta Berdintasun Saila
G-	G.4.2	Komunikazio-espazio bat sortzea, teknologia berrien laguntzaz, gazteei Berdintasun Sailak antolatzen dituen jardueren berri eman ahal izateko					Alkatetza eta Berdintasun Saila.
G-	G.4.3	Berdintasun Plana erakunde barruan zein kanpoan ezagutaraztea					Alkatetza eta Berdintasun Saila
G-	G.4.4	Berdintasun Planak emandako aurrerapausoei buruzko informazioa aldian-aldian helaraztea Udaleko langileei					Berdintasun Saila
G-	G.4.5	Herritarrei aldian-aldian informazioa bidaltzea (Hauxe Daren bitartez), bai eta komunikabideei ere, Berdintasun Planaren aurrerapausoei buruz					Alkatetza eta Berdintasun Saila
5. helburua: Udaleko sailek egunerokoan egiten duten lanean genero-ikuspegia txerta dadila sustatzea							
G-	G.5.1	Udaleko sailekin bilerak antolatzea, egiten dituzten ekintzetan genero ikuspegia nola txertatu aholkatzeko eta lan horretan laguntzeko					Berdintasun Saila
G-	G.5.2	Udalak ekoizten duen informazio guztiari buruzko datuak biltzeko era aldatzea, ikerketa, inkesta, txosten, estatistika,					Berdintasun Saila eta

		memoria eta azterketa guztietan datuak sexuaren arabera bereizten direla bermatzeko, hala Udalak egindakoak direnean nola kontratatutako norbaitek egiten dituenean						gainerako Udaleko Sailak
G-	G.5.3	Eraginari buruzko alde aurreko txostenak egitea Gazteria eta Hezkuntza Sailetan						Berdintasun, Gazteria eta Hezkuntza Saila
G-	G.5.4	Udalak sustatzen dituen kontratu, diru-laguntza eta hitzarmen publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko baldintzak txertatzea						Idazkaritza eta Udaleko arlo guztiak.
<b>6. helburua: Udalak abiatzen dituen ekintzetan emakumeen eta gizonen parte hartze parekidea sustatzea</b>								
G-	G.6.1	Udalak sustatzen dituen prozesu parte-hartzaileetan emakumeen eta gizonen partaidetza parekidea dela bermatzea eta berrikustea (epaimahaietan, lehiaketetan...)						Udaleko arlo guztiak.
<b>7. helburua: Udaleko langileak kudeatzeko genero-ikuspegia aintzat hartzea</b>								
G-	G.7.1	Genero-berdintasuna txertatzea langileak kontratatuzko lehiaketen (edo oposizioen) ikasgai-zerrendan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 17.4 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz						Langileen Saila

<b>BALIOAK ALDATZEA ETA EMAKUMEAK AHALDUNTZEA</b>							
<b>1. helburua: autonomiaren garapena eta genero-kontzientzia ahalbideak</b>							
Tresna	ID	Ekintza	2015	2016	2017	2018	Sailak
Ah-	Ah.1.1	Berdintasunarekin, emakumeen aurkako indarkeriarekin eta ahalduntzearekin zerikusia duten alderdiak lantzea pobrezia ekonomikoko egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden emakumei zuzendutako prestakuntza-programetan					Gizarte Ekintza Saila eta Berdintasun Saila
Ah-	Ah.1.2	Amurrioko edozein adinetako emakumei, eta, bereziki, gazteei, zuzendutako ahalduntze-tailerrak egitea					Berdintasun Saila, Aurreraka Emakumeen Elkarte eta Gazteria Saila
<b>2. helburua: gazteen artean, oro har, ezagutza-maila areagotzea gizarte berdintza bat zer den eta eta zergatik den beharrezkoa jakiteari dagokionez; horrez gain, neska-mutilen balioak eta jarrerak aldatzea, berdintasunaren alde eginez</b>							
Ah-	Ah.2.1	Generoa eta Gizarte Aldaketa hautazko irakasgaia ematea Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten ikastetxe guztietan (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Hezkuntza Saila eta GAPP
Ah-	Ah.2.2	Ikastetxeei laguntza ematea, Herritartasunerako Hezkuntza irakasgai emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean sakontzeko (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Hezkuntza Saila eta GAPP
Ah-	Ah.2.3	Probintziako emakume gazteen elkarten eta Amurrioko nesken arteko topaketak sustatzea, horien berri emanez					Hezkuntza Saila eta



		lonjetan eta ikastetxeetan (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Gazteria Saila
<b>3. helburua: balio-aldaketa sustatzea, sexuen araberako gizarteko rolak eta estereotipoak baztertuz</b>							
Ah-	Ah.3.1	Hezkuntza-jarduerak antolatzea Amurrioko gurasoentzat, baita haurrentzat ere					Berdintasun Saila, Kultura Saila, Gazteria Saila, Hezkuntza Saila eta Euskara Saila
Ah-	Ah.3.2	Sentsibilizazio-kanpainak antolatzen jarraitzea egun esanguratsuetan; esaterako, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko egunean					Berdintasun Saila, Kultura Saila, Gazteria Saila, Hezkuntza Saila, Euskara Saila, Kirol Saila, Amurrio Antzokia...
Ah-	Ah.3.3	Genero-ikuspegia bame hartzen duten Bizikidetzaren Planak dituzten ikastetxeei babes ematen jarraitzea (esaterako, Zaraobe Institutua), eta gainerako ikastetxeek ere halako planak egin ditzaten sustatzea					Berdintasun Saila eta Hezkuntza Saila
Ah-	Ah.3.4	Emakumeen kirol-jarduera sustatzeko sentsibilizazio-jarduerak antolatzea					Berdintasun Saila eta Kirol Saila
Ah-	Ah.3.5	Gizonei zuzendutako ikastaroak egitea, balio- eta rol-aldaketa sustatzeko					Berdintasun Saila
<b>4. helburua: neska-mutilek beren osasunarekiko duten erantzukizuna eta zainketa areagotzea, genero-rolak arriskuak hartzean duten eragina kontuan hartuta, eta gauzatzen diren ekintzetan arrisku horien berri esplizituki ematea</b>							
Ah-	Ah.4.1	Gazteentzako autozainketa-tailerra egitea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Gazteria Saila
<b>5. helburua: nesken talde bat eta mutilen beste bat sortzea, balio-aldaketa sakon bat lortzeko helburuarekin lan egiteko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez</b>							
Ah-	Ah.5.1	Neska gazteak ahalduzko espazio bat sortzea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Saila eta Gazteria Saila
Ah-	Ah.5.2	Mutilen lantaldea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Saila eta Gazteria Saila
Ah-	Ah.5.3	Tutoretzetan autonomia eta ahalduzko lantzeko gidak banatzea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Hezkuntza Saila
<b>6. helburua: neskek kirola eta gustuko duten jarduera fisikoa egiteko aukerak areagotzea</b>							
Ah-	Ah.6.1	Genero-ikuspegia aintzat hartzen duen kirolari buruzko azterketa (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Kirol Saila
Ah-	Ah.6.2	Genero-ikuspegia aintzat hartzen duen kirol-programa bat diseinatzea ikastetxeentzat (Gazteriarentzako					Kirol Saila eta Hezkuntza

		Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Saila
Ah-	Ah.6.3	Espazioen erabilera berrikustea eta aldaketak egitea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Hezkuntza Saila
Ah-	Ah.6.4	Udalerriko kirol-eskaintza berrantolatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta, adinarengatiko diskriminazio anizkoitzari arreta berezia eskainiz (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala).					Kirol Saila
<b>7. helburua: nesken eta mutilen ikasketen dibertsifikazioa sustatzea, curriculumaren aukeraketan eragiten duten estereotipoak eta rolak ezabatzea, eta ikasleak kontzientziatzea lanbide guztietan eta bizitzako esparru guztietan parekidetasuna lortzearen garrantziak</b>							
Ah-	Ah.7.1	Etokizuneko emakume langileen eguna (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Saila eta Hezkuntza Saila
Ah-	Ah.7.2	Lidergorako prestakuntza (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Saila
Ah-	Ah.7.3	Emakume profesionalen ikusgarritasuna hobetzeko eta horiei garrantziaren inguruan sentsibilizatzeko lana (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Hezkuntza Saila eta Berdintasun Saila
Ah-	Ah.7.4	Orientazio akademiko ez sexistarako materialak ematea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Hezkuntza Saila
Ah-	Ah.7.5	Enplegu-zerbitzuen jarduera aztertzea, genero-ikuspegitik begiratuta, arreta berezia eskainiz adinaren faktorea ere barne hartzen duen diskriminazio anizkoitzari (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Langileen Saila eta Amurrio Bidean
<b>8. helburua: emakumeek enplegua lortzeko dituzten aukerak eta beren enplegu-baldintzak hobetzea, baita beren igoera profesionala ere</b>							
Ah-	Ah.8.1	Emakumeen kontratazioa sustatzea inguruko enpresetan					Alkatetza, Berdintasun Saila, Amurrio Bidean eta Langileen eta Enpleguaren Saila
Ah-	Ah.8.2	Enplegua sustatzeko programak egitea pobrezia-arriskuan edo -egoeran eta/edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden emakumeekin					Gizarte Ekintza, Amurrio Bidean eta Langileen eta Enpleguaren Saila
Ah-	Ah.8.3	Amurrio Bidean laguntzarekin negozio bat jarri duten emakume ekintzaileak saritzen jarraitzea					Amurrio Bidean eta Berdintasun Saila
Ah-	Ah.8.4	Pertsonen bizitza pertsonala, familiara eta lanekoa bateratzeko sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, eskualdeko sare ekonomikoari dagokionez					Berdintasun Saila, Amurrio Bidean eta

							Langileen eta Enpleguaren Saila
Ah-	Ah.8.5	Emakundek eta beste erakunde batzuek berdintasunerako planak egiteko ematen dituzten diru-laguntzen berri ematea enpresei					Alkatetza, Berdintasun Saila eta Amurrio Bidean
<b>9. helburua: gizarte-baliabideak lortzeko bidea hobetzea, arreta berezia eskainiz bazterkeria anizkoitzeko egoerei</b>							
Ah-	Ah.9.1	Emakumeentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuari eustea					Gizarte Ekintza Saila eta Arabako Foru Aldundia
Ah-	Ah.9.2	Emakumeentzako Arreta Psikologikoko Zerbitzuari eustea					Gizarte Ekintza Saila eta Arabako Foru Aldundia
Ah-	Ah.9.3	Enplegua sustatzeko programak egitea pobrezia-arriskuan edo egoeran eta/edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden emakumeekin, genero ikuspegia kontuan hartuta					Berdintasun Saila, Gizarte Ekintza Saila, Amurrio Bidean eta Lanbide
<b>10. helburua: emakumeen mugimendu asoziatiboa eta sare asoziatiboan duten parte-hartzea sustatzea</b>							
Ah-	Ah.10.1	Emakumeen Elkartarekin (AURRERAKA) eta inguruko emakume-elkartekin lankidetzan jarraitzea					Berdintasun Saila
Ah-	Ah.10.2	Emakume gazteen elkarte baten sorrera sustatzea					Berdintasun Saila eta Gazteria Saila
Ah-	Ah.10.3	Aiarako Eskualdeko Emakumeen Topaketa antolatzen laguntzea eta emakumeen sareak sortzea, zenbait alderdi kontuan izanda: adina, dibertsitate funtzionala, jatorria, eta abar					Berdintasun Saila eta Aiako Eskualdea
Ah-	Ah.10.4	Emakumeen Elkarteari behar duen aholkularitza ematen jarraitzea, eta gainerako kirol-, kultura- eta bestelako elkartei ere aholkuak ematea, beren jarduketetan genero-ikuspegia sar dezaten					Berdintasun Saila
Ah-	Ah.10.5	Emakumeen elkartze-gaitasuna sendotzen jarraitzea, diru-laguntzak emanez					Berdintasun Saila
Ah-	Ah.10.6	Jai Batzordearen bitartez, jai parekideagoi buruzko sentsibilizazioa hedatzea eta parte-hartzea sustatzea					Berdintasun Saila, Jaien Saila eta Jai Batzordean parte-hartzen duten elkarteak
<b>11. helburua: kulturaren arloan emakumeek duten ikusgarritasuna handitzea eta sustatzea</b>							
Ah-	Ah.11.1	Emakumeak protagonista dituzten edo emakumeek sortu dituzten kultura-jarduerak antolatzen jarraitzea					Kultura Saila, Berdintasun

							Saila, Antzerki Saila eta Jaien Saila
<b>12. helburua: emakume kirolarien jarduerari ikusgarritasuna ematea</b>							
Ah-	Ah.12.1	Kirol-programazio orokorrean eta jaietan emakume kirolariak ezagutarazteko jarduerak antolatzea					Kirol Saila eta Jaien Saila

<b>GIZARTE ANTOLAMENDU ERANTZUNKIDEA</b>							
<b>1. helburua: erantzunkidetasuna eta zainketaren etika sustatzen dituzten jarduerak sustatzea</b>							
Tresna	ID	Ekintza	2015	2016	2017	2018	Sailak
A-	A.1.1	Erantzunkidetasuna sustatzeko sentsibilizazio-ekintzak egitea; esaterako, emakumeak eta gizonak ohikoak ez dituzten roletan agertzen dituzten kanpainak					Berdintasun Saila, Kultura Saila, Hezkuntza Saila eta Gazteria Saila
A-	A.1.2	Erantzunkidetasuna sustatzen duten ikastaroak eta tailerrak antolatzea, gizon zein emakumeentzat					Berdintasun Saila eta Kultura Saila
A-	A.1.3	Antolatzen diren jardueretan kontziliazio-zerbitzuak eskaintzen jarraitzea					Berdintasun Saila, Kultura Saila, Hezkuntza Saila, Euskara Saila, Ingurumen Saila, Kirol Saila, etab.
<b>2. helburua: gurasoen arteko erantzunkidetasuna areagotzea hezkuntza zereginetan, eta seme- alabak berdintasun handiagoz tratatzea hezkuntzari dagokionez</b>							
A-	A.2.1	Urtero tailer bat egitea, aitek beren seme-alaben zainketa-lanetan duten inplikazioa areagotzeko (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Saila, Gazteria Saila eta Hezkuntza Saila
A-	A.2.2	Urtero tailer bat egitea, gurasoei zuzendua, seme-alabei hezkuntza parekidea emateko gakoak eta horren onurak azaltzeko (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Saila, Gazteria Saila eta Hezkuntza Saila
<b>3. helburua: gurasoek etxeko lanetan eta zainketan duten erantzunkidetasuna areagotzea, eta gazteek etxeko lanetan eta zainketa-lanetan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzea</b>							
A-	A.3.1	Urtero, sentsibilizazio-jardunaldi bat egitea, ikastetxe guztiei irekia, nerabeek etxeko lanak eta zainketa-lanak beren gain har ditzaten sustatzeko (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Saila, Gazteria Saila eta Hezkuntza Saila
<b>4. helburua: etxeko lanek eta zainketa-lanek bizitzari eusteko duten garrantziaren ezagutza hobetzea gazteen artean. Emakumeek zein gizonek zeregin horietan duten funtzioa bereziki azpimarratzea</b>							
A-	A.4.1	Etxeko lanei eta zainketa-lanei buruzko udal-tailerrak diseinatzea, gazteei zuzendutakoak (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Saila, Hezkuntza Saila eta

								Gazteria Sailsa
--	--	--	--	--	--	--	--	-----------------

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA ERROTIK KENTZEA							
1. helburua: indarkeriazkoak ez diren portaera-ereduen garapena sustatzea							
Tresna	ID	Ekintza	2015	2016	2017	2018	Sailak
I-	I.1.1	Sentsibilizazio-kanpainak antolatzen jarraitzea azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean					Berdintasun Sailsa, Kultura Sailsa, Gazteria Sailsa, Hezkuntza Sailsa, Euskara Sailsa, Kirol Sailsa, Amurrio Antzokia
I-	I.1.2	EAEn gertatzen diren emakumeen aurkako erasoak publikoki salatzen jarraitzea					Gizarte Ekintza Sailsa, Berdintasun Sailsa eta Protokoloaren Koordinazio Mahaia
I-	I.1.3	Jaietan gertatzen diren sexu-erasoen aurkako sentsibilizazio-kanpainak egitea					Berdintasun Sailsa, Jaien Sailsa eta Emakumeen Elkarte
I-	I.1.4	Sexu-erasoen eta eraso sexisten aurkako protokolo bat egitea eta onestea Amurrioko Udalean					Alkatetza, Berdintasun Sailsa, Langileen eta Sindikatuen Sailsa
2. helburua: mendekotasuna eta autonomiarik eza sorrarazten duten edo nesken ahalduntze pertsonala gutxitzen duten harreman afektiboekoa kopurua murriztea							
I-	I.2.1	Bikote-harremanetako indarkeriari eta mikro-indarkeriari buruzko prestakuntza ematea ikastetxeetan (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Sailsa eta Hezkuntza Sailsa
I-	I.2.2	Beldur Barik lehiaketa sustatzeko ekintzak egitea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Sailsa eta Hezkuntza Sailsa
3. helburua: indartzea sexu-hezkuntza, bizitza sexualak eskaintzen duen aukera-aniztasunaren aurreko tolerantzia eta norberaren eta besteen segurtasunarekiko errespetua							
I-	I.3.1	Aniztasun afektibo-sexualari buruzko proiektuen ezarpena koordinatzea ikastetxeetan (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Sailsa eta Hezkuntza Sailsa
I-	I.3.2	Ziber-jazarpenari buruzko azterketa eta jarduketa-tailerrak (Gazteriarentzako					Berdintasun Sailsa eta

		Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Hezkuntza Saila
<b>4. helburua: Emakumeen aurkako jokabideen prebentzioa hobetzea</b>							
I-	I.4.1	Gazteentzako tailerrak antolatzea, indarkeriazko jokabideak eta jokabide sexistak prebenitzeko, eta tratu onak sustatzeko					Berdintasun Saila, Hezkuntza Saila eta Gazteria Saila
I-	I.4.2	Gizonei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak antolatzea, gai hauei buruz: berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta erantzunkidetasuna					Berdintasun Saila
<b>5. helburua: emakumeen aurkako indarkeriari eta sexu-erasoei ematen zaien arreta eta prebentzioa hobetzea ikastetxeetan. Ziber-jazarpen kasuak aztertzea eta murriztea, genero-ikuspegia kontuan hartuta</b>							
I-	I.5.1	Eusko Jaurlaritzaren ikastaroei buruzko informazioa ematea (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Saila
I-	I.5.2	Lantaldeak egitea ikastetxeekin, emakumeen aurkako indarkeriaren protokoloaren segimenduaren harira (Gazteriarentzako Berdintasunerako Plan Sektoriala)					Berdintasun Saila, Gizarte Ekintza Saila, Hezkuntza Saila, GAPP, Arabako Foru Aldundia, Ertzaintza eta Udaltzaingoa
<b>6. helburua: indarkeriaren biktimei arreta eta babes osoa bermatzea</b>							
I-	I.6.1	Erakundeen arteko Jarduera eta Koordinaziorako Udal Protokoloaren Koordinazio Mahaiari jarraipena ematea, genero-indarkeriaren biktimentzako arreta hobetzeko					Berdintasun Saila, Gizarte Ekintza Saila, GAPP, Arabako Foru Aldundia, Ertzaintza eta Udaltzaingoa
I-	I.6.2	Genero-indarkeriaren biktimei ematen zaien arreta hobetzeko Erakundeen arteko Jarduera eta Koordinaziorako Udal Protokoloaren garapenari buruzko informazioa ematea aldi behin teknikari eta politikariei					Berdintasun Saila eta Gizarte Ekintza

## PLANAREN KUDEAKETA

---

### **Koordinazioa eta antolamendua**

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikulua ezartzen duen moduan, foru- eta toki-administrazioek beren egiturak egokitu behar dituzte; hala, horietako bakoitzean gutxienez erakunde, organo edo administrazio-unitate bat arduratuko da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak sustatzeaz, programatzeaz, ebaluatzeaz eta horiei buruzko aholkularitza emateaz, dagokion jarduketarako lurralde-organoen baitan.

### **Plana Sustatzeko Egitura**

Plan honen jarduketa-programatik ateratzen diren helburuak eta ekintzak betetzeko, beharrezkoa da Plana sustatzeko eta horren segimendua nahiz ebaluazioa egiteko egiturak izatea.

**Plana Sustatzeko Egitura** Gizarte Ekintza Sailaren barnean dago, eta bi pertsonak osatzen dute: arduradun politiko batek eta berdintasun-teknikari batek; azken horrek astean 20 ordu ditu berdintasun-politikak sustatzeko. Horrez gain, berdintasun-teknikariak berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoak izango du, 900 ordu baino gehiagokoa. Garrantzitsua da nabarmentzea Berdintasun Sailak Alkatetzaren babesa duela.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 10. artikuluaekin bat etorriz, hauek dira berdintasun-teknikariaren funtzioak:

- a) Berdintasunaren arloko programazioa edo plangintza diseinatzea, baita segimendua eta ebaluazioa egiteko hainbat mekanismo ere.
- b) Ekintza positiborako neurri espezifikoak diseinatzea eta sustatzea.
- c) Dagokion administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia sar dadila sustatzea, maila eta fase guztietan.
- d) Sailei eta dagokion administrazioaren mende dauden gainerako erakunde eta organoei aholkularitza eta laguntza ematea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren Sailan.

- e) Bere lurralde-esparruan bizi diren herritarrak sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko hasierako egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko beharrezkoak diren neurriei buruz, diskriminazio anizkoitzeko egoerak kontuan izanda.
- f) Dagokion administrazioak programa eta zerbitzu espezifiko batzuk egokitu eta sor ditzala sustatzea eta horretarako proposamenak egitea. Programa eta zerbitzu horien helburua izango da bazterkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen oinarrizko gizarte-eskubideak bermatzea.
- g) Emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa kontziliatzen laguntzen duten gizarte- nahiz komunitate-baliabideak eta -zerbitzuak sortzeko eta egokitzeko laguntza ematea eta proposamenak egitea.
- h) Bere lurralde-esparruan egon daitezkeen bazterkeria-egoerak antzematea, eta horiek erabat desagerrarazteko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
- i) Partaidetzarako eta lankidetzarako harremanak eta bideak ezartzea beren helburuen edo zereginen artean emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzea duten erakunde publiko eta pribatuekin.
- j) Bere administrazioko langileen prestakuntza-beharren diagnostikoa egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, eta kasu bakoitzean ezarri behar den prestakuntza mota proposatzea, baita hori eskuratzeko irizpideak eta lehentasunak ere.
- k) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren Sailan eskumena duten erakundeekin, organoekin eta unitateekin hitz egitea, bereziki EMAKUNDEekin (Emakumearen Euskal Erakundea).
- l) Lege honetan zehazten diren gainerako zeregin guztiak edo beren eskumenaren baitan esleitzen dizkietenak.

### **Koordinazioa eta segimendua egiteko egitura politiko eta teknikoa**

Berdintasun Saila barne hartzen duen koordinazio eta segimendurako egitura politikoa Gizarte Politiken Batzordea da. Organo horrek berdintasunaren arloko informazio-batzarrak egiten ditu aldizka, urtean zehar. Batzar horietan izaten dira organoak barne hartzen dituen politikariak. Informazio-batzarren helburua da Osoko Bilkurak eta Gobernu Batzordeak (Osoko Bilkurak eskuordetutako eskumenak dituenen) erabaki behar dituen gaiak aztertzea, horiei buruzko txostenak egitea edo



kontsultatzea. Hala egiten da, premiazkotzat jotzen diren erabakiak hartu behar diren kasuetan izan ezik. Horrez gain, Gobernu Batzordearen eta alkatearen edo udalburuaren eskumenekoak diren gai buruzko txostenak ere egingo dituzte, haiek gai horien berri berriaz ematen dietenean.

Egitura teknikoari dagokionez, Amurrioko Udalak 2008an sortutako sail arteko batzorde bat du. Horren zeregin nagusia da, besteak beste, Amurrioko Udalaren Berdintasunerako Planen segimendua egiteko kanal gisa jardutea. Diagnostikoa egin ondoren, koordinazioa eta segimendua sendotzea komeniko litzatekeela antzeman da, Udaleko ail desberdinetako teknikariekin, koordinazioa hobetze aldera.

Hala, bilkura teknikoetan honako alderdi hauek landu ahal izango liriateke (sail arteko batzordea):

1. Urteko Plan Eragilea bateratzea, eta horren segimendua eta ebaluazioa egitea.
2. Sailen arteko baterako lana sustatzea, ekintza eta proiektu komunak egin ditzatela bultzatuz.
3. Berdintasun Sailaren ekintzei buruzko informazioa ematea.
4. Udal-kudeaketan generoa txertatzeko kontzientziaketa eta sentsibilizazioa areagotzea.

### **Herritarren parte-hartzerako egitura**

Beste koordinazio-maila batean herritarren parte-hartzea dago. 2009tik, Amurrioko Udalak Berdintasunerako Udal Espazio bat du; AURRERAKA Emakumeen Elkartek eta beste kultura-, kirol- eta gizarte-elkarte batzuek osatzen dute. Berdintasunerako Udal Espazioak honako zeregin hauek ditu, besteak beste: aukera-berdintasuna lortzeko jarduketarako udal-planak egin daitezela sustatzea eta horien segimendua egitea, Udalaren indarreko Berdintasunerako Planeko printzipioak betearaztea, sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak proposatzea emakumeen bizi-kalitatea eta aukera-berdintasuna hobetzen laguntzen duten esparru guztietan, zenbait ekintzaren antolamenduaren onespenean parte hartzea (martxoaren 8a, azaroaren 25, urteko Plan Eragileak, etab.), emakume guztiek Udaleko kontuetan parte hartzeko aukera izan dezatela ahalbidetzea, eta abar. Berdintasunerako Udal Espazioaren Erregelamenduak

urtean gutxienez bi bilera egin behar direla ezartzen du, baina normalean gehiago egiten dira.

### **Koordinazio instituzionalerako egitura**

Azkenik, Udalak BERDINSAREAn, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarean, parte hartzen jarraituko du, EUDELekin eta EMAKUNDErekin batera.

Horrez gain, sor daitezkeen beste koordinazio-sare edo -egitura batzuk baloratuko ditu; esaterako, 2011tik inguru honetan eta Aiarako Eskualdean sortzen ari dena.

### **Programazioa**

IV. Plan hau programatzeko, Urteko Plan Eragileak egingo dira urte bakoitzeko azken hiruhilekoan; Berdintasun Batzordeak onetsi beharko ditu plan horiek.

- Lanerako planak egingo dira, alderdi hauek kontuan hartuta: helburuak, jarduerak eta zereginak, tartean dauden Sailak, egutegia, aurrekontua eta ebaluaziorako adierazleak.
- Programa Eragile bakoitzerako aurrekontu orokorra.